

**Eulalia  
Abaituaren  
emakumeak**  
*Las mujeres  
de Eulalia  
Abaitua*

**Eulalia Abaituaren emakumeak / Las mujeres de Eulalia Abaitua**

# Eulalia Abaituaren emakumeak

*Las mujeres  
de Eulalia  
Abaitua*

Maite Jiménez  
Ochoa de Alda



# Eulalia Abaituaren emakumeak

*Las mujeres  
de Eulalia  
Abaitua*

# AURKIBIDEA /INDICE

Sarrera / Introducción	4
Biografia laburra / Breve biografía	6
Euskal argazkigintzaren aurrendaria / Pionera de la fotografía vasca	12
Eulalia Abaituaren emakumeak / Las mujeres de Eulalia Abaitua	19
Katalogoa / Catálogo	24



Castor María Allendesalazar. Circa 1870.  
Argazkia: L. Carrouché, Bilbo. BEM/  
MVB-ABA-BUR artxiboa.

Castor María Allendesalazar. Circa 1870.  
Foto: L. Carrouché, Bilbo. Archivo BEM/  
MVB-ABA-BUR.

## Sarrera

Eulalia Abaitua Allende-Salazar, ezagutzen den lehenengo euskal emakume argazkilaria, aitzindaria izan zen bere garaian. Emakumezkoen ikuspegia eta gizarte ikuspuntua txertatu zizkion argizkigintzari eta artxibo historiko bikaina utzi digu jatorri apaleko emakumei buruz eta Bilbon eta Bizkaian landa- eta etxe-inguruneetan emakume horiek izaten zituzten lanei buruz. Eulalia Abaitua Allende-Salazarrek errealismo handiz egiten ditu erretratuak, eta bere garaiko emakumeen egunerokotasunaren esentzia atzematen du. Bere argazkiek zehaztasun handiz islatzen dituzte XX. mende hasierako euskal gizartea, tradizioa eta folklorea. Euskal Museoak argazkilaria honen 2.500 irudi baino gehiago gordetzen ditu eta haren laguntzari esker bildu ditugu erretratu hauek “EULALIA ABAITUAREN EMAKUMEAK/ MUJERES DE

## Introducción

Eulalia Abaitua Allende-Salazar, la primera fotógrafa vasca de la que se tiene constancia, fue una persona adelantada a su época. Con su visión de mujer y su concepción social de la fotografía nos ha dejado un archivo histórico excepcional sobre las mujeres más humildes y los trabajos que realizaban en entornos rurales y domésticos en Bilbao y Bizkaia. Eulalia Abaitua Allende-Salazar muestra un gran realismo en sus retratos femeninos captando la esencia de la cotidianidad de las mujeres de la época. Sus fotografías son un fiel reflejo de la sociedad, la tradición y el folklore vasco de principios del siglo XX. Retratos que hemos recopilado en la exposición “EULALIA ABAITUAREN EMAKUMEAK/ MUJERES DE EULALIA ABAITUA” gracias a la colaboración del Museo Vasco, el cual custodia más de 2500 imágenes de la fotógrafa.

EULALIA ABAITUA” erakusketan. Euskal Herriko emakumeen jendartearen lehenengo argazkilaria eta erretratugile emakumezkoa izateaz gain, Eulalia Abaitua Allende-Salazarren familia lotuta dago Bizkaiko Batzar Nagusien historiarekin. Eulaliaren aitita zen Castor María Allendesalazar Urquijo, Bizkaiko Ahalduen Nagusi eta “Bizkaiko Aita” izandakoa. Hain zuzen ere, bere aitita horrek landatu zuen Gernikako Arbolaren landarea Batzar Etxean Zin Egiteko Tribunaren aurrean 1860ko urtarrilaren 15ean, gaur egun Arbola Zaharra deitzen zaiona gaixotu eta ihartu zenean. Haritz hori landatu zenean, Eulaliak 7 urte zituen. Arbolak 2004ra arte iraun zuen, eta Gernikako bombardaketatik ere bizirik irten zen.

Bizkaiko Batzar Nagusietan, berdintasunaren alde dugun konpromisoaren barruan eta emakumeen ekarpenari ikusgaitasuna emateko gure ahaleginari eutsiz, aitortza egin nahi diogu Eulalia Abaitua Allende-Salazarri, egin zuen lan handiagatik. 2017. urtean hasi ginen, berdintasunaren aldeko planen bitartez, emakumeak ahalduentzako prozesuak sustatzen, benetako berdintasunean aurrera egitea ahalbidetuko duten ekintzak eta neurriak bultzatzen, ahaztu gabe emakumeek gure historian izan duten papera aldarrikatzea eta mendeetan zehar izan ez duten ikusgaitasuna ematea.

Eulalia Abaitua Allende-Salazar emakume handia izan zen, eta ez zen kikildu garai hartan nagusi zen diskriminazioaren aurrean, gehien gustatzen zitzaiona egiten baitzuen: aire zabalean emakumei argazkiak egitea. Eta argazkigintzari zion zaletasunari esker daukagu gaur hemen XX. mende hasierako emakumeen bizimoduaren lekukotasuna ematen digun dokumentu hau.

Ana Otadui Biteri  
Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria

Además de ser la primera mujer fotógrafa y retratista de la sociedad femenina de Euskal Herria, la familia de Eulalia Abaitua Allende-Salazar está unida a la historia de las Juntas Generales de Bizkaia. Era nieta del Diputado General de Bizkaia y “Padre de Provincia” Castor María Allendesalazar Urquijo. Fue precisamente su abuelo quien plantó un retoño descendiente del árbol de Gernika, delante de la Tribuna Juradera de la Casa de Juntas el 15 de enero de 1860, al ponerse enfermo y secarse el llamado actualmente Árbol Viejo. Cuando se plantó este roble Eulalia tenía 7 años, El árbol perduró hasta el 2004, sobreviviendo incluso al bombardeo de Gernika.

Desde las Juntas Generales de Bizkaia, dentro de su compromiso con la igualdad y el esfuerzo por visibilizar la figura de la mujer, quiere reconocer la gran labor que realizó Eulalia Abaitua Allende-Salazar. Desde el año 2017 estamos inmersos en la no discriminación de la mujer a través de Planes de Igualdad, con acciones y medidas que permitan avanzar en una igualdad real, además de reivindicar el papel de la mujer en nuestra historia, dotándolas de una visibilidad que durante siglos no han tenido.

Eulalia Abaitua Allende-Salazar fue una gran mujer que no se dejó intimidar por la discriminación existente en esa época, haciendo lo que más le gustaba, que era fotografiar a mujeres al aire libre. Y gracias a su afición a la fotografía tenemos hoy un fiel documento de cómo vivían las mujeres de principios del Siglo XX.

Ana Otadui Biteri  
Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia

**Eulalia Abaitua. Circa 1880.**  
Argazkia: Ch. Reutlinger, Paris.  
BEM/MVB-ABA-BUR artxiboa

**Eulalia Abaitua. Circa 1880. Foto:**  
Ch. Reutlinger, París. Archivo  
BEM/MVB-ABA-BUR.



## Biografia laburra

## Breve biografía



Eulalia Abaitua ile  
laburrarekin. Circa 1860.  
Argazkia: Cosme Duñabeitia,  
Bilbo BEM/MVB-ABA-BUR  
artxiboa.

Eulalia Abaitua con pelo corto.  
Circa 1860. Foto: Cosme  
Duñabeitia, Bilbao. Archivo  
BEM/MVB-ABA-BUR.

Eulalia Abaitua Allende-Salazar Bilbon jaio zen 1853ko urtarrilaren 25ean, familia burges baten barruan, eta Bariko San Nikolas elizako Bataioen Erregistroan María Elvira Juliana izenarekin inskribatu zuten. Hilabetea bete orduko, ama hil zitzaion, eta, harrezkero, familiak bateo-izen horren ordez Eulalia ama zuenarena ipini zion, zenduaren oroimenez.

Eulalia Allende-Salazar Eguia gernikarraren eta Luis de Abaitua eta Adaro merkatari bilbotarraren alabea zen Eulalia Abaitua. Aita alargundu zanean, Eulalia eta Felipe neba nagusia inude batek hazi zituen, Bilboko Zazpi Kaleetan familiak zuen etxean. Sendo eta alai hazi zen, eta mari-apain xamarra zenez, aitak ilea labur mozten zion. Bartzelonan ikasi zuen, Sarriako Jesusen

Eulalia Abaitua Allende-Salazar nació en Bilbao el 25 de enero de 1853, en el seno de una familia burguesa y fue inscrita en el Registro de Bautismos de la iglesia de San Nicolás de Bari, con el nombre de María Elvira Juliana. Sin cumplir un mes falleció su madre y desde entonces la familia mudó ese nombre de pila por el de su finada madre, Eulalia, queriendo honrar de este modo su memoria.

Eulalia Abaitua era hija de la guerniquesa Eulalia Allende-Salazar Eguía y del comerciante bilbaíno Luis de Abaitua y Adaro. Cuando éste enviudó, Eulalia y su hermano mayor, Felipe, fueron criados por una nodriza en su residencia familiar de las Siete Calles de Bilbao. Creció sana y alegre aunque era algo presumida, por lo que su padre solía raparle el pelo.

Bihotzaren ikastetxean. Ez dakigu ze ikasketa egin zituen eta zenbat denbora eman zuen erakunde horretan, ikastetxeko artxiboak betiko galdu ziren-eta Espainiako Gerra Zibilean. Gai horri buruzko bestelako testigantzarik ere ez dago.

Luis de Abaituak odol-, adiskidetasun- eta negozio-loturak zituen Sevillan bizi zen Juan Ygnacio Narciso de Olano merkatariaekin. Juan Ygnacio lehenengo eta haren emaztea, Carlota Picavea de Lesaca, geroago (1864an) hil zirenean, euren seme-alaba adingabe bien tutore eta kuradore izendatu zuten Luis de Abaitua. Egoera horrek eskutik ekarri zuen lau gazteen arteko adiskidetasuna estutzea eta Abaituatarren eta Olanotarren bizitzak elkarrenak izatea; izan ere, neba-arrebak neba-arrebekin ezkondu ziren.

1871. urtean Liverpoolen bizi ziren Luis de Abaitua eta seme-alabak, Shaw Street kaleko 69. zenbakian. Eulalia Abaituak 18 urte zituen eta *scholar* zen. Eurekin bizi zen Juan Narciso, ingeniari itza ikasten. Ana, berriz, hiri berean zegoen neskontzako ikasle-egoitza batean bizi zen. Liverpoolen bertan, Salisbury Street-eko St. Francis Xavier eliza katolikoan, 1871eko maiatzaren 1ean, ezkondu ziren bikote biak: Eulalia, Juan Narcisorekin, eta Felipe, Anarekin. 1876. urtean Londresen bizi ziren bikote biak, Lambard Villas-eko 3.ean, Greenwich-en, Tamesis ibai ondoan. Urte horretan bertan hil zen Madrilen Luis de Abaitua, eta Abaitua neba-arrebek dirutza jaso zuten oinordetzan.

Bien bitartean, Eulalia Abaituak lau seme-alaba izan zituen, jaiotza-hurrenkeraren arabera: María Carlota Victorina (Bilbo, 1872), Luis María Andrés (Gordexola, 1874), Luis María Javier (Greenwich, 1876) eta M<sup>a</sup> Concepción (Begoña, 1878).

Estudió en Barcelona, en el colegio del Sagrado Corazón de Jesús de Sarriá. Desconocemos qué estudios cursó y el tiempo que permaneció en aquella institución, pues sus archivos se destruyeron en el transcurso de la Guerra Civil Española. Tampoco existen otros testimonios que puedan arrojar luz sobre este tema.

Luis de Abaitua tenía lazos de consanguinidad, amistad y negocios con el comerciante Juan Ygnacio Narciso de Olano que vivía en Sevilla. Tras la muerte de éste y la de su mujer, Carlota Picavea de Lesaca, fallecida en 1864, Luis fue nombrado tutor y curador de sus dos hijos menores: Juan Narciso y Ana. Esta circunstancia favoreció el nacimiento de una estrecha amistad entre los jóvenes, y que las vidas de los Abaitua y los Olano corrieran en paralelo para terminar en un doble matrimonio.

En 1871 Luis de Abaitua residía con sus hijos en Liverpool, en el número 69 de *Shaw Street*. Eulalia Abaitua tenía 18 años y era *scholar*. Con ellos moraba Juan Narciso, estudiante de ingeniería, mientras que Ana se alojaba en una residencia para señoritas, en esa misma ciudad. Fue allí, en la iglesia católica de St. Francis Xavier de Salisbury Street, el 16 de Mayo de 1871, donde se registró un doble matrimonio: el de Eulalia con Juan Narciso, y el de Felipe con Ana. En 1876 ambas parejas residían en Londres, en Lambard Villas número 3, Greenwich, a orillas del Támesis. Ese mismo año, Luis de Abaitua murió en Madrid y los hermanos Abaitua heredaron una pequeña fortuna.

Entre tanto, Eulalia Abaitua dio a luz cuatro hijos que, por orden de nacimiento, fueron: María Carlota Victorina (Bilbao, 1872), Luis María Andrés (Gordexola, 1874), Luis María Javier (Greenwich, 1876) y M<sup>a</sup> Concepción (Begoña, 1878).



Eulalia Abaitua. Circa 1871.  
Argazkia: Vandyke & Brown, Liverpool.  
BEM/MVB-ABA-BUR artxiboa.

Eulalia Abaitua. Circa 1871.  
Foto: Vandyke & Brown, Liverpool.  
Archivo BEM/MVB-ABA-BUR.



Eulalia Abaitua eta Juan Narciso Olano  
seme-alabekin. Circa 1888. Argazkia: Lazaro  
Regil, Bilbo. BEM/MVB-ABA-CAR artxiboa

Eulalia y Juan Narciso con sus hijos e hijas.  
Circa 1888. Foto: Lázaro regil, Bilbao. Archivo  
BEM/MVB-ABA-CAR.



*El Pino jauregia* Olano-Abaituatarrekin.  
Circa 1886. BEM/MVB-ABA-BUR artxiboa

El palacio del Pino con la familia Olano Abaitua.  
Circa 1886. Archivo BEM/MVB-ABA-BUR.

Data zehatza ezezaguna da, baina 1879. urte inguruan itzuliko ziren Eulalia eta Juan Narciso Begoñako elizatera (gaur egun Bilboko auzoa da) bizitzen. Hantxe, Eulalia Abaituak aitarengandik jaso zuen 37.200 m<sup>2</sup>ko lur-sailean, egin zuten etxean bizi izan ziren, *El Pino jauregia* zeritzon. Leku zoragarria da, Begoñako santutegiari dautsala, behealdean Bilbora eta urrunean Abrara begira. Juan Narcisok berak egin zuen proiektua, eta materialak eta altzariak Ingalaterratik ekarri zituzten. Estetika britainiarra lorategian ere erabili zuten: kroketez zelaia jarri zuten, eta gimnasia erakundeak erabili zituzten. Estetika britainiarra lorategian ere erabili zuten: kroketez zelaia jarri zuten, eta gimnasia erakundeak erabili zituzten. Estetika britainiarra lorategian ere erabili zuten: kroketez zelaia jarri zuten, eta gimnasia erakundeak erabili zituzten.

Se desconoce la fecha exacta, pero probablemente hacia 1879 se produjo el regreso definitivo de Eulalia y Juan Narciso a la que fuera anteiglesia de Begoña, hoy barrio de Bilbao. Allí fijaron y construyeron su residencia, el *palacio del Pino*, en la finca del mismo nombre, con un terreno de 37.200 m<sup>2</sup> que Eulalia Abaitua había heredado de su padre. Era un lugar excepcional junto al santuario de Begoña, con Bilbao a los pies y el Abra en el horizonte. El proyecto de obra lo realizó el propio Juan Narciso y los materiales constructivos y el mobiliario los importaron de Inglaterra. La estética británica también la aplicaron al jardín, instalando un campo de croquet y levantando una pequeña casa destinada a gimnasio, al este de la finca. En el sótano de la casa, Eulalia Abaitua puso su laboratorio fotográfico. Enfrente de ellos, con el mismo planteamiento y estética, Felipe y Ana levantaron también su residencia familiar.



Eulalia Abaitua argazki-kamera eta tripodearekin.  
Circa 1940. BEM/MVB-ABA-BUR artxiboa

Eulalia Abaitua con la cámara fotográfica y el trípode.  
Circa 1940. Archivo BEM/MVB-ABA-BUR.

1909ko maiatzaren 14an alargandu zen Eulalia Abaitua.

El 14 de Mayo de 1909 Eulalia Abaitua enviudó.

Espainiako Gerra Zibilean Bilbora joan zen bizitzen, Albia Lorategietako La Equitativa eraikineko pisu batera. 1941. urtean Gran Víako 58. zenbakira aldatu zen. Handik bi urtera, 1943ko irailaren 16an hil zen, 90 urte zituela. Begoñako hilerrian ehortzi zuten, senarra izan zuenaren ondoan, bizi zirela agindu zuten panteoian.

Durante la Guerra Civil Española, bajó a Bilbao, a un piso del edificio La Equitativa, en la Plaza de los Jardines de Albia. En 1941 trasladó su residencia a la calle Gran Vía 58. Dos años más tarde, el 16 de septiembre de 1943, falleció con 90 años, y fue enterrada en el cementerio de Begoña, junto a los restos de su marido, en el panteón que levantaron en vida.

## Euskal argazkigintzaren aurrendaria

“Argazki oro presentzia-ziurtagiria da. Ziurtagiri hori da asmakuntza horrek irudien familian sartu duen gene berria”<sup>1</sup>

Roland Barthes

“Etxea emakumearen muga eta esparrua zen, etxeko espazioa berea zuen eta nortasunean zeraman”<sup>2</sup>. Orduko testuingurua horixe izanik, ez da erraza Eulalia Abaituak argazkigintzarekin duen interesa azaltzea, ez dago-eta hori argitzen lagunduko luken dokumentu edo erregistro idatzirik. Zaletasun hori Ingalaterran sortuko zitzaion. Seguruena, Britainia Handian (1871-1878 artean), Liverpooletan eta Londresen, bizi izan zenean, bertatik bertara ezagutuko zituen argazkigintzaren munduan jazotzen ari ziren aurrerapenak. Richard Leach Madoxek gelatinobromuro aglutinatzailearen argazki-plaka lehorren industria martxan zuen; Liverpool Dry Company Limited enpresa industrialak merkaturatu hornitzeko plakak egiten zituen; zabal zebiltzan Journal of the Photographic Society, British Journal of Photography edo Photographic News aldizkariak, besteak beste. Era berean, gogora dezagun emakumezko argazkilariek oso goiz agertu zirela Erresuma Batuan. Batzuk aipatzearen, Anna Atkins (1799-1871), Lady Clementina Hawarden (1822-1865) eta Julia Margaret Cameron (1815-1879) argazkilariek gogora genitzake. Horien lanak seguruena

<sup>1</sup> Barthes, Roland: *La cámara lúcida*. Barcelona: Paidós, 2020. 99. or.  
<sup>2</sup> Niedermaier, Alejandra: *La mujer y la fotografía. Una imagen espejada de autoconstrucción y construcción de la historia*. Buenos Aires: Leviatán, 2008. 71. or.

## Pionera de la fotografía vasca

“Toda fotografía es un certificado de presencia. Este certificado es el nuevo gen que su invención ha introducido en la familia de las imágenes”<sup>1</sup>

Roland Barthes

Explicar el interés de Eulalia Abaitua por la fotografía, en un contexto en el que “La casa era el límite y la frontera femenina. El espacio doméstico una identidad y una pertenencia a la mujer”<sup>2</sup>, no resulta fácil pues no existe ningún documento ni registro escrito que lo aclaren. Es muy probable que su afición se despertara en Inglaterra. Lo más seguro es que cuando estuvo viviendo en tierras británicas (entre 1871-1878), en las ciudades de Liverpool y Londres, conociera de primera mano los avances que se estaban sucediendo en el mundo de la fotografía. Richard Leach Madox había puesto a punto la industria de las placas fotográficas secas con aglutinante de gelatinobromuro; la firma industrial Liverpool Dry Company Limited fabricaba placas para abastecer el mercado; las revistas Journal of the Photographic Society, British Journal of Photography, o Photographic News, entre otras, eran publicaciones al alcance de muchos. Recordemos también que la existencia de mujeres fotógrafas se manifestó muy pronto en el Reino Unido. Anna Atkins (1799-1871), Lady Clementina Hawarden (1822-1865) y Julia Margaret Cameron (1815-1879)

<sup>1</sup> Barthes, Roland: *La cámara lúcida*. Barcelona: Paidós, 2020. p. 99.  
<sup>2</sup> Niedermaier, Alejandra: *La mujer y la fotografía. Una imagen espejada de autoconstrucción y construcción de la historia*. Buenos Aires: Leviatán, 2008. p. 71.

ezagutuko zituen Eulaliak bertan bizi izan zenean; izan ere, herrialde horretako emakumeek hasieratik bertatik agertu zuten argazkigintzak zekarren berritasunaren inguruko interesa<sup>3</sup>. South Kensington Museum (gaur egun Victoria & Albert Museum) bere bildumak aberasteko eta ezagutarazteko argazkiak erosten eta erakusten hasi zenean, han zegoen Julia Margaret Cameronen lana.

Familia burges bateko kide izateak eta bizitza osoan zehar ondare propioa, kontserbatua eta handitua izateak, bizitza erosoan eraman ahal izatea bideratu zion Eulalia Abaituari, diru-estutasunik gabekoa. Heziketa jaso izanak, bidaiatzeak eta Ingalaterran denboraldi batez bizi izanak bizi-ikuspegiak zabaldu zizkion. Abaitua bizitzan ez zen konformatu bere garaiko eta bere mailako emakumeen ohiko espazioetara mugatzearekin. Beste zerbaitetara ausartu zen. Argazki-laborategia jarri zuen senarrarekin eraiki zuten etxeko sotoan. Arestian esan dugunez, etxearan kanpoalde eta barruko altzariak ingeles estiloak zirenez, pentsatzekoa da laborategia bide bertsutik hornituta egongo zela. Material suntsigarriak, Bilbon arian-arian zabalduz ari ziren argazki dendak-eta zituen eskura: Lux etxea, Crescencio Arceren denda, Broquier y Compañía enpresa, edo Casa Amado establezimendua. Eulalia Abaitua argazkilaritzaren profesionalen eta zaleen hirugarren belaunaldiaren barruan sartu daiteke (XIX. mendearan amaieraren eta XX. mendearan hasieraren artean); sasoi horretan, aldaketa eta aurrerapen tekniko etengabekoan artean, errealitate bihurtuz zihoazen argazkigintza, irudien kontsumoa eta publizitatea. Industriaren eskutik, hobetzen ari zen irudien berehalako erregistroa, eta merkaturatu agertzen hasita

<sup>3</sup> Cameron J. Watson (2020), “The ethnographer who never was: Eulalia de Abaitua as a lens on *Fin-the-Siècle* Basque Society”. *Visual Anthropology*, 33:3. or. 264. DOI: 10.1080/08949468.2020.1746623.

son solo tres nombres de fotógrafas destacadas, cuyo trabajo pudo muy bien haber conocido Eulalia cuando estuvo viviendo allí; y es que las mujeres de ese país se interesaron por este nuevo medio desde su comienzo<sup>3</sup>. Cuando el South Kensington Museum (hoy Victoria & Albert Museum) comenzó a adquirir y exponer fotografías para enriquecer y dar a conocer sus colecciones, allí estaba la obra de Julia Margaret Cameron.

Pertenecer a una familia burguesa y tener un patrimonio propio, conservado y aumentado a lo largo de su vida, le permitió a Eulalia Abaitua llevar una vida acomodada, sin trabas económicas. Acceder a una educación, viajar, residir durante un tiempo en Inglaterra amplió sus miras vitales. Abaitua no se conformó con limitar su vida a los espacios habituales de las mujeres de su tiempo y de su clase. Se atrevió a algo más. Instaló su laboratorio fotográfico en el sótano de la casa que había construido con su marido. Si el exterior de la casa y el mobiliario interior eran de estilo inglés, como ha quedado dicho, es de suponer que el laboratorio estaría equipado bajo los mismos parámetros. Para el material fungible disponía de los establecimientos fotográficos que se iban abriendo en Bilbao: la Casa Lux, el comercio de Crescencio Arce, la empresa Broquier y Compañía, o el establecimiento Casa Amado. Eulalia Abaitua puede englobarse dentro de la tercera generación de profesionales y aficionados (entre finales del siglo XIX y principios del siglo XX), cuando la producción de fotografías, el consumo de imágenes y la publicidad eran una realidad del mundo burgués en constante cambio y avance técnico. La industria iba perfeccionando el registro instantáneo de imágenes y las cámaras portátiles empezaban a comercializarse. El paradigma de esta tendencia es la empresa estadounidense Kodak, que para

<sup>3</sup> Cameron J. Watson (2020), “The ethnographer who never was: Eulalia de Abaitua as a lens on *Fin-the-Siècle* Basque Society”. *Visual Anthropology*, 33:3 p. 264. DOI: 10.1080/08949468.2020.1746623.

zeuden kamera eramangarriak. Joera horren paradigma Estatu Batuetako Kodak enpresa da, XIX. mendearen amaierarako publiko guztientzat egokia zen lehenengo kamera merkaturatu zuena. Baina, gainera, Kodak-ek berariazko publizitatea egin zuen emakumeen artean tresna errez horren erabilera sustatzeko, bizitza erregistratzeko tresna moduan.

Hortaz, Abaituak zaletasun horri ekin zion eta, horren ondorioz, ondare sendo eta errepikaezina sortu zuen; izan ere, berak egin zuen arte, berak baino lehenagoko inork, ezta garaiko zuen inork ere, argazki-begiradaren argipean jarri barik zeuden hainbat arlo: esaterako, denetarikoko pertsonak, ogibideak, egoerak eta lekuak, berdin XX. mendearen hasierako Bilbo industrialekoak zein Bizkaiko landa-eremukoak. Eulalia Abaitua ez zen baina argazkilari profesionala izan. Zale moduan ekin zion. Hori kalterako baino, lanaren emaitzaren onerako izan zen. “Normalean, amateurra artistaren heldugabetasun legez definitzen da: Lanbide baten maisutasuneraino igo ezin den edo igo gura ez duen norbait bezala. Baina argazkigintzaren arloan, berriz, amateurra da profesionalaren izaera hartzen duena: bera da-eta argazkigintzaren noematik hurren dagoena.”<sup>4</sup> Baliteke arrazoi horrexegatik ere XX. mendeak emakumezko argazkilari bikainak eman izana. Izan ere, “argazkigintza-artearen berezkotasunak — maisu (sic) autodidakta handiak ditu, gizezkoen mendeko egitura zurrun barik— ez zituen emakumezkoentzako ohikoak ziren oztopoak” ez behintzat beste diziplina artistiko batzuetan zeuzkatenak<sup>5</sup>.

Patroi bati lotuta ez egoteak ematen duen askatasunarekin, Abaituak gura zuena eginez garatu zuen bere argazki-diskurtsoa, gura izan zuen moduan eta gura izan zuenean, ez

finales del siglo XIX había lanzado al mercado la primera cámara apta para todos los públicos. Pero además, Kodak hizo publicidad orientada a las mujeres, a fin de fomentar en ellas el uso de este sencillo aparato como medio de registrar la vida.

Abaitua se embarcó en una actividad que dio como resultado un legado que tiene un peso único e irreplicable, en cuanto que nadie antes que ella ni contemporánea a ella, fijó su mirada fotográfica en un universo tan amplio de personas, ocupaciones, situaciones y lugares que abarca desde el incipiente Bilbao industrial a comienzos del siglo XX a la Bizkaia rural. Sin embargo, Eulalia Abaitua no fue una fotógrafa profesional. Cultivó su actividad como aficionada. Esto, lejos de devaluar su trabajo redundó en beneficio del resultado de su obra. “De ordinario, el amateur es definido como una inmaduración del artista: como alguien que no puede o no quiere elevarse hasta la maestría de una profesión. Pero en el campo de la práctica fotográfica es el amateur, por el contrario, quien asume el carácter del profesional: pues es él quien se encuentra más cerca del noema de la Fotografía”<sup>4</sup>. Puede que esta misma sea también la razón de que el siglo XX haya alumbrado excelentes fotógrafas, y es que “La espontaneidad del arte de la fotografía, con grandes maestros (sic) autodidactas y sin rígidas estructuras dominadas por el hombre, no presentaba las barreras habituales”<sup>5</sup> a las que las mujeres se enfrentaban en otras disciplinas artísticas.

Con la libertad que da no estar sujeta a ningún patrón, Abaitua desarrolló su discurso fotográfico haciendo lo que quiso, como quiso y cuando quiso, porque no tenía una clientela a la que contentar, ni un establecimiento con horarios de apertura y cierre. Podía expresar su personalidad e inquietudes libremente. En

zeukalako poztu beharreko bezerorik, ezta ordutegidun establezimendurik ere. Askatasunez erakutsi zitzakeen bere izaera eta kezkek. Egoera horretan, Eulalia Abaituak bere interesak islatzeko tresna moduan formulatu zuen argazkigintza, gertaerak erregistratu eta oroitzeko. Argi naturala lagun zuela, hainbat elementu hartu zituen kanpoaldetik: beren poseetan eta zereginetan zeuden pertsonak, lan- eta festa-espazioak, joan-etorriak, begietarako deigarri, bitxi, isolagarri, maitagarri, gogoangarri iruditzen zitzaiona. Argazki-plaketan harrapatutako irudi bilduma hori laborategian errebelatzen zuen, lur azpian, iluntasunaren babesean lan eginez, kontaktuaren bidez positibatuz, “Tonu beroetara”<sup>6</sup> biratuz, lehortuz, paperera pasatuz.

Abaituaren lanak, bere argazkiek, pertsona xumeen eguneroko bizitza erakusten dute, euren arropa eta lanbideak agertoki errealetan dituztela. Mundu hori existitzen da, eta gure begien aurrean agerrarazten da, Abaituak hori ikusgarri jartzeko duen borondateari esker. Mundu horrek zabal-zabalik begiratzen digu. Eulalia Abaituaren argazki-corpusean Sontag-ek Diane Arbus-i (1923-1971) buruz nabarmentzen duena halako zerbait aurkitzen dugu: “Erretratu fotografikoaren erretorika arruntan, kamerari aurre egiteak solemnitatea esan nahi du, zintzotasuna, subjektuaren esentziaren errebelazioa. Horregatik, aurrealdeko angeluak egokia dirudi erretratu zeremonialetarako [...] Arbus-ek aurrealdeko posizioaz egiten duen erabilera txundigarria da, ze erretratuan ateratzen dituen subjektu askogandik nekez itxaron zitekeen horrenbesteko xalotasuna eta ingenuitatea kameraren aurrean [...]. aurrealdeko bistak argazkiratu den pertsonaren lankidetzara ere argiro erakusten du. Jende hori

estas circunstancias, Eulalia Abaitua formuló la fotografía como un instrumento de plasmación de sus intereses, para el registro y la memoria de los hechos. Aliada con la luz natural, del exterior recogió a las personas en sus poses y quehaceres, los espacios de trabajo y fiesta, el ir y venir, lo que a su mirada le llamaba la atención, le parecía curioso, aislable, querible, memorable. Esa colecta de imágenes atrapadas en las placas fotográficas la reveló en el laboratorio, bajo tierra, trabajando al amparo de la oscuridad, positivando por contacto, virando a “Tonos calientes”<sup>6</sup>, secando, pasando a papel.

La obra de Abaitua, sus fotografías, muestran la vida cotidiana de personas humildes con sus ropas y oficios en escenarios reales. Este mundo existe y se despliega ante nuestros ojos gracias a su determinación por hacerlo visible. Es un mundo que nos mira abiertamente. En el corpus fotográfico de Eulalia Abaitua encontramos algo similar a lo que destaca Sontag sobre Diane Arbus (1923-1971): “En la retórica normal del retrato fotográfico, enfrentar la cámara significa solemnidad, sinceridad, la revelación de la esencia del sujeto. Por eso el ángulo frontal parece el apropiado para los retratos ceremoniales [...] lo que vuelve tan impresionante el uso de la posición frontal en Arbus es que los sujetos son a menudo gente de la cual no se esperaría tanta afabilidad e ingenuidad ante la cámara [...], la vista frontal también implica de la manera más vívida la cooperación del modelo. Para persuadir a esa gente de que posara, la fotógrafa ha tenido que ganarse su confianza, ha tenido que trabar «amistad con ella»”<sup>7</sup>.

Eulalia Abaitua es una retratista de gente anónima, sencilla. Su trabajo encierra una

<sup>4</sup> Barthes, Roland. Op. Cit. p. 110-111. or.

<sup>5</sup> Khaldei, Y. [et al.]: *Maestros de la fotografía. El siglo de las mujeres*. Madril: Público, 2009. 3. or.

<sup>4</sup> Barthes, Roland. Op. Cit. p. 110-111.

<sup>5</sup> Khaldei, Y. [et al.]: *Maestros de la fotografía. El siglo de las mujeres*. Madrid: Público, 2009. p. 32.

<sup>6</sup> Eskuz idatzia kartoizko kutxa gainean, zenbakirik gabe: “Mis nietos / Mis niños Y U nietos / Aldeanos. / Tonos calientes”. En Jimenez Ochoa de Alda, Maité: “Eulalia Abaitua (1853-1943): Memoria fotográfica de nuestro pasado”. RIEV 56.2/2011. p. 759.

<sup>7</sup> Sontag, Susan: *Sobre la fotografía*. Barcelona: Debolsillo, 2010. p. 45-46.

konbentzitzeko, argazkilariak euren konfiantza lortu behar izan du, eurengan «adiskidetasuna» eragin behar izan du”<sup>7</sup>

Eulalia Abaituak jende anonimoa, xumea, erretratatu du. Bere lanaren edertasunak dokumentatu egiten ditu jatorri bateko kide izatearen kontzientzia, bizi-inguruabarrak eta klase-izaera; errealtate horri aurpegia jartzen dio, ikusgarri egiten du eta gure begi aurrean ipintzen du. Bere argazkiek ba al zuten helbururik? Zertarako aterako ote zituen erretratuak Eulalia Abaituak? Helbururen baten bila ote zebilen? Ez dago itaunon erantzunik. Ziurtzat jo litekeen gauza bakarra da argazkietan edertasun-kanon berri eta barneratzaileagoetan arakatu zuela, bere fokuaren bitartez ertzetan zegoen mundua harrapatu zuelako, mundu debalutua, ahaztua eta ikusezina ere, nonbait. Begirada pertsona horiengan paratu zuen eta jende horrek daukan duintasun indibidual eta kolektibo diskretuan erretratatu zituen<sup>8</sup>.

1990. urtean hauxe idatzi zuen Alberto Schommer Garciak (1928-2015) Abaituaren gainean: “Eulalia begi sentikorra da, bere herria maite eta interpretatu egiten duena [...] Artea arte hutsez, argi-jokorik edo konposizio marapilaturik bilatzen ez duen emakume hori, benetako reporterra da, orain Magnum Agentziako argazkilari handia izango litzatekeena.”<sup>9</sup> Shommerrek Eulalia Abaituak euskal argazkigintzan egindako lan aurrendaria aitortzen du, artean jende gutxik ibilitako bideak aztertzeari aurrea hartu ziolako; argazkiak ateratzen zituen kazetari grafikoa balitz bezala, gertakariak bertatik bertara jaso eta egiaztatuz.

Bilboko Euskal Museoan dauden Eulalia Abaituaren argazkiek 100 urte baino gehiago

belleza que documenta la pertenencia a un origen, sus circunstancias de vida, la condición de clase; pone rostro a esa realidad, la hace visible y la confronta a nuestros ojos. ¿Tenían sus fotos algún propósito? ¿Con qué finalidad hacía Eulalia Abaitua sus retratos? ¿Buscaba algún objetivo? No hay respuestas a estas preguntas. Lo único cierto es que con sus fotografías indagó sobre cánones de belleza nuevos, más incluyentes, pues capturó con su foco un mundo que estaba en los márgenes, devaluado, si no olvidado o invisible. Su mirada se fijó en esa gente y la retrató en su discreta dignidad individual y colectiva<sup>8</sup>.

En 1990, Alberto Schommer García (1928-2015) escribió sobre Abaitua: “Eulalia es un ojo sensible que ama a su pueblo y se dedica a interpretarlo [...] Esta mujer que no busca el arte por el arte, ni tampoco el juego de luces o las composiciones rebuscadas, es una auténtica reporter, que ahora sería un gran fotógrafo de la Agencia Magnum”<sup>9</sup>. Shommer reconoce la labor pionera de Eulalia Abaitua dentro de la fotografía vasca porque se adelantó a explorar caminos poco frecuentados; sacaba fotografías como si fuera una periodista gráfica, recogiendo y verificando sobre el terreno los acontecimientos en el momento de los hechos.

Las fotografías creadas por Eulalia Abaitua, que se custodian en el Museo Vasco de Bilbao, tienen más de 100 años de antigüedad. Son 2500 registros de los cuales 2000 responden a placas estereoscópicas; el resto a otros formatos. Unos y otros son casi siempre de vidrio, en blanco y negro, aunque contienen algunos ejemplares en color. Las placas estereoscópicas que Abaitua utilizó eran un producto estandarizado lanzado al mercado por el francés Jules Richard en la última década del siglo XIX; el equipo se componía

dute. 2.500 erregistro dira, eta horietatik 2.000 dira plaka estereoskopikoak; gainerakoak beste formatu batzuetakoak dira. Batzuk zein besteak beirazkoak dira ia beti, zuri-beltzean; koloretako ale batzuk ere badaude. Abaituak erabili zituen plaka estereoskopikoak produktu estandarizatuak ziren, Jules Richard frantziarrak XIX. mendeko azken hamarkadan merkaturatu zituenetik; ekiptoak osagaiok zituen: objektibo bikoitzeko kamera bat, gelatinobromurozko emulsioidun 4,5 x 10,7 cm-ko beirazko plakak eta bisorea (estereoskopioa, mahai gainekoa edo eramangarria izan zitekeena), argazkiak errebelatu ondoren begiratu ahal izateko balio zuena. Plaka estereoskopikoak orduko klase burgesek 3Dko irudiak egiteko eta ikusteko erabiltzen zituzten baliabideak ziren.

Eulalia Abaituaren tresneria lehen eta bigarren belaunaldietakoa baino arinagoa zen. Eskuko estereoskopioa bisore erabilerraza zen, edonora zailtasun barik eramane zitekeena, gaur egun prismatiko batzuk eraman ditzakegun moduan. Hainbat argazkitan ikusi dezakegunez, Abaituak ez zuen zalantzarik izan argazki-irteeretan estereoskopioa aldean eramateko. Horrek erakusten du Eulaliak argazkietan agertzen zirenei erakutsi egin gura izaten zizkiela argazkiak, emaitzak ikus zituzten.<sup>10</sup>

Garbiñe Olano Galdos Eulalia Abaituaren bilobari entzun genionez, amama bisitatzen zuten bakoitzean argazkiak ateratzen zizkien. Handik gutxira itzuli eta paperezko kopia bat ematen zien, hezea hondinokarren, etxera eramane zezaten. Paperean irudia zelan agertzen zen ikustea oso hunkigarria zen gu guztiontzat. Lekukotasun horren arabera, Eulalia Abaituak ezagutzen zuen argazki Minuteroaren teknika, eta erabili egiten zuen, eremu pribatuan behintzat, egun pasa bisitan

de una cámara de doble objetivo, placas de vidrio de 4,5 x 10,7 cm con emulsión de gelatinobromuro, y un visor (el estereoscopio, que podía ser de sobremesa o portátil) para poder mirar las fotografías una vez reveladas y positivadas. Las placas estereoscópicas eran el recurso de las clases burguesas de entonces para hacer y visionar imágenes en 3D.

El equipo de Eulalia Abaitua era más ligero que el aparato de la primera y segunda generación. El estereoscopio portátil era un visor manejable que podía transportarse sin dificultad, como hoy podemos llevar unos prismáticos. Abaitua no dudó en llevarlo en sus salidas fotográficas, según observamos en varias de sus fotografías. Demuestra el interés de Eulalia por compartir con sus modelos su trabajo, mostrándoles los retratos que sacaba, para que apreciaran los resultados<sup>10</sup>.

El testimonio oral que recogimos de Garbiñe Olano Galdós, nieta de Eulalia Abaitua, cuenta que siempre que visitaban a su *amama*, ésta les hacía fotos. Al poco volvía y les daba una copia en papel, todavía húmedo, para que se la llevaran de vuelta a casa. “Ver cómo en el papel iba apareciendo la imagen era muy emocionante para todos nosotros”<sup>11</sup>. Este relato apunta a que Eulalia Abaitua conocía la técnica de la fotografía Minutera y la practicaba, por lo menos en el ámbito privado, haciendo fotos a sus familiares que venían de visita a pasar el día. La fotografía Minutera fue una técnica en boga desde 1920, habitual de fotógrafos ambulantes, quienes en un breve espacio de tiempo sacaban la fotografía y la entregaban a sus clientes.

<sup>7</sup> Sontag, Susan: *Sobre la fotografía*. Bartzelona: Debolsillo, 2010. 45-46. or.

<sup>8</sup> Cameron J. Watson, Op. Cit. p. 267. or.

<sup>9</sup> *Gure Aurreko Andrak / Mujeres Vascas de Ayer*-en, Bilbo: Bilboko Euskal Museoa, 1990. IV. or.

<sup>8</sup> Cameron J. Watson, Op. Cit. p. 267.

<sup>9</sup> En *Gure Aurreko Andrak / Mujeres Vascas de Ayer*, Bilbao: Museo Vasco de Bilbao, 1990. p. IV.

<sup>10</sup> Estereoskopioa bi argazkitan agertzen da: ABA-00615-n, nekazari batek bere eskuetan dauka; eta ABA-01098-n, non Carlota, Eulalia Abaituaren alabak, daraman.

<sup>10</sup> El estereoscopio aparece en dos fotografías: ABA-00615: una campesina lo tiene entre las manos; y en ABA-01098 es Carlota, la hija de Eulalia Abaitua, quien lo lleva.

<sup>11</sup> Garbiñe Olano Galdós (1913-2015), entrevista realizada el 23/05/2011.

zetozen senideei argazkiak eginez <sup>11</sup>. Argazki Minuteroaren teknika asko erabili zen 1920. urtetik aurrera; argazkilari ibiltariak erabili ohi zuten. Argazkiak atera eta, handik gutxira, bezeroen eskuetan zeuden.



Garbiñe Olanoren argazki Minuteroa El Pino jauregian  
F/ Eulalia Abaitua.  
BEM/MVB-ABA-OLA

Fotografía Minutera de  
Garbiñe Olano en el palacio  
del Pino.  
F/Eulalia Abaitua. BEM/  
MVB-ABA-OLA

<sup>11</sup> Garbiñe Olano Galdósi (1913-2015) egindako elkarrizketa (2011/05/23).

## Eulalia Abaituaren emakumeak

Erretratuaren demokratizazioa argazkigintzari esker izan zela dio John Bergerrek <sup>12</sup>. Argazkigintza asmatu eta zabaldu zenean, argazkiek beste baliabide bat eskaini zuten pertsonen fisionomia erregistratu eta aurkezteko, eta lehian hasi zen ordura arte gutxi batzuen —aberatsen— eskura bakarrik zeuden bitartekoekin; hau da, pintura, eskultura, marrazketa edo grabatuarekin. Argazkilaritzara populazioaren segmentu zabalago bat heldu zitekeen, burgesia aberatsa. Denborak argazkilaritza masak erregistratzeko tresna bihurtu zuen; izan ere, pertsona batek erretratatu izateko izan zezakeen interesa ez ezik, argazkilariek pertsona anonimoak singularizatzeko duten nahia ere jokoan sartu zen. Horren adibide garbia da Eulalia Abaituaren lana, eta, zehazki, hemen aurkezten ditugun emakumezkoen 34 erretratuak.

Eulalia Abaituaren argazki-lana, bere taxonomiaren arabera, hainbat modutara sailkatuta dago. Corpus poliedrikoa da, eta oso ondo erakusten du ze pluralak diren berak erretratatzeko dituen emakumezkoak eta ze murriztailea litzatekeen emakumeok estereotipo batera mugatzea. Izan ere, plaka estereoskopikoak biltzeko kutxetan eta beirazko plaken gainean gordetzen diren eskuz idatzitako oharretan, denetariakoak dagoz: zenbakiak, azalpen-oharrak, datak, izen arrunt eta propioak, patronimikoak, toponimoak eta abar, hainbat gai, jarduera, leku, espazio eta abar aipatzen dituztenak. Abaituak idazten du: <sup>13</sup>

<sup>12</sup> Berger, John: *Sobre las propiedades del retrato fotográfico*. Barcelona: Gustavo Gili mínima, 2007. 32 or.

<sup>13</sup> Jimenez Ochoa de Alda, Maita. Op. Cit. 757-761 or.

## Las Mujeres de Eulalia Abaitua

La democratización del retrato fue obra de la fotografía <sup>12</sup>, afirma John Berger. Con el invento y la difusión de la fotografía, el retrato fotográfico como medio para registrar y presentar la fisonomía de una persona vino a competir con la pintura, la escultura, el dibujo o el grabado, los medios hasta entonces existentes al alcance de unos pocos, los ricos. A la fotografía podía acceder un segmento de la población mucho más amplio, la burguesía acomodada. El tiempo convirtió a la fotografía en una herramienta para registrar a las masas, pues no solo estaba el interés que pudiera tener una persona por ser retratada sino que entró en juego el deseo de las fotógrafas y los fotógrafos por singularizar a personas anónimas, siendo un claro ejemplo de esto la obra de Eulalia Abaitua, y en concreto los 34 retratos de mujeres que aquí presentamos.

La obra fotográfica de Eulalia Abaitua, atendiendo a su propia taxonomía, está clasificada de varias maneras. Es un corpus poliédrico que ilustra de maravilla cuan plurales son las mujeres que ella retrata, y lo encorsetado y restrictivo que resultaría circunscribirlas a un estereotipo. Y es que, en las anotaciones manuscritas que se conservan en las cajas de almacenado de las placas estereoscópicas y sobre las placas de vidrio, encontramos numeraciones, leyendas, fechas, nombres comunes y propios, patronímicos, topónimos, etcétera, que apuntan a múltiples temas, actividades, lugares, espacios. Abaitua escribe <sup>13</sup>:

<sup>12</sup> Berger, John: *Sobre las propiedades del retrato fotográfico*. Barcelona: Gustavo Gili mínima, 2007. p. 32.

<sup>13</sup> Jimenez Ochoa de Alda, Maita. Op. Cit. p. 757-761.

“sardinerak”  
“Conchita”, “Conchita Elorrión”  
“Maria Costa eta Asuncion / jostunak”  
“Jardin Conce, Ines amarekin/ eta  
Manuela”  
“Mañariako atsoa”  
“Emakume ijitoak Santutxun”  
“Iruleak Elorrión / Ubideko ahizpak”  
“Esne saltzailea”  
“Neska / bere / bigantxarekin/Bizkaia”  
“Arropa garbitzaileak Aretan”

Bere taxonomiak zeregin eta lanbideen aniztasuna ikusarazten du: sardinera, esne-saltzailea, arropa-garbitzailea, irulea, jostuna; egoera zibila eta adina: neska, atsoa, hurrenez hurren; ahaidetasuna: ama, ahizpak; izaera etnikoa: ijitoak; herriak: Elorrión, Ubidea, Mañaria, Areta. Esan liteke Eulalia Abaituaren emakumeek konstelazio bat osatzen dutela, eta konstelazio horretan genero-kointzidentzia (emakumeak dira) beharrezko kategoria bat dela, baina ez dela nahikoa haren lanaren sakontasuna eta aberastasuna ulertzeko eta balioesteko. Edonola ere, aurrendari horren argazki lanetara hurreratzen denak argi ikusiko du emakumezkoek bizi duten unibertsoa harrapatu eta azaleratzeko duen benetako interesa.

2021ean gagoz, Eulalia Abaituak inguruan zituen emakume batzuegan jarri zuen begiradaren irakurketa egin guran. Bilboko Euskal Museoak 1990ean, *Gure Aurreko Andrak / Mujeres Vascas de Ayer* erakusketan (katalogoa zuen), argitaratu zituen 68 erreproduzioetatik ateratako 34 argazki aukeratu ditut.

Zer eragiten digute argazki horiek? Zer ikusten dugu irudi horietan? Zer adierazten digute irudiok? Irudiotan jasotako jarduerak pizten al digute Barthes-ek ezkutukoa, lilura, erakarpena, bibrazioa, xehetasuna, kasualitatea, asaldura... deitzen zuena halako

“sardineras”  
“Conchita”, “Conchita en Elorrio”  
“Maria Costa y Asuncion / costureras”  
“Jardin Conce con su madre Ines / y  
Manuela”  
“La vieja de Mañaria”  
“Gitanas Santuchu”  
“Elorrio hilanderas / hermanas de Ubidea”  
“lechera”  
“Neska / con su / novilla /Vizcaya”  
“Lavanderas en las Arenas”

Su taxonomía hace visible la diversidad de ocupaciones y oficios: sardinera, lechera, lavandera, hilandera, costurera; el estado civil y edad: *neska*, vieja, respectivamente; la relación de parentesco: madre, hermanas; la condición étnica: gitanas; localidades: Elorrión, Ubidea, Mañaria, Las Arenas. Se podría decir que las mujeres de Eulalia Abaitua forman una constelación en la que la coincidencia de género, son mujeres, es una categoría necesaria pero insuficiente para entender y apreciar la profundidad y riqueza de su obra. En cualquier caso, quien se acerque al trabajo fotográfico de esta pionera, podrá apreciar su interés genuino por capturar y alumbrar el universo que habitan las mujeres.

Estamos en 2021, ante lo que pretende ser una lectura de la mirada que Eulalia Abaitua fijó en algunas mujeres que la rodeaban. He hecho una selección de 34 fotografías extraídas de las 68 reproducciones que el Museo Vasco de Bilbao publicó en 1990, en la exposición *Gure Aurreko Andrak / Mujeres Vascas de Ayer* que incluía catálogo.

¿Qué nos suscitan estos rostros? ¿Que apreciamos en esos gestos? ¿Qué nos indican estas imágenes? Las actividades que en ellas se muestran ¿despiertan acaso algo de lo que Barthes denominó lo oculto, la fascinación, la atracción, la vibración, el detalle, la casualidad, la perturbación... Eso que toca, hiere, interroga, estimula, deleita... hasta tal punto

zeozer? <sup>14</sup> Hain zuzen ere, ukitu, zauritu, itaundu, estimulatu, gozarazi eragiten duen hori, harik eta «pentsatzen duen begiaren» bidez ikusarazten gaituen arte, kontzientzia afektiboa esnatuz?

Begirada emakumezkoei zuzentzen die: bakarrik daudela, bikotekidearekin, edo taldea osatuz; bustoko, plano ertaineko edo gorputz osoko erretratuak eginez; erretratu lapurtuak edo posean ateratakoak; hondo neutro batekin zein lan- edo atsedeen-giroan. Adin guztietako emakumezkoak dira eta beren itxura fisikoa eta berekin dituzten elementuak erakusten dituzte. Abaituak argazkitan ateratzen dituen emakumeak xumeak dira; argazkilariarekin enpatizatuz, irribarrez, argazkilariren eskakizunei erantzuten dieten langileak dira, zereginetan geldialdi bat egiten dutenak, erretratua atera dakien. Argazki batzuetan, apain-apain agertzen dira, jaiegunetako jantziekin; ia beti jantzi xumeekin.

Eulalia Abaituaren argazki hauetako emakumezkoak ez datoz bat garaiko estereotipoekin. Garai hartako burgesen kodeek ez dituzte maila apalagoko emakumeak, nekazariak, pobreak, langileak idealizatzen. Ideal femeninoak edertasuna goraltzen zuen, etxeko eta familiako mundurako eroapen osoa, amatasuna, gizonarekiko mendekotasuna (berdin ezkontidearekin zein aitarekin), atsegintasuna. Ideala inoiz betetzen ez denez, gizarte horrek berak emakumeen erretratuak erabiltzen ditu gizonen dibertimendurako objektu erotik edo pornografiko moduan. Kode burges horretan, argazkigintzak emakume militantearen eta sufragistaren kliseak ere sustatu zituen; xarmarik gabeko emakume angelutsuak, hau da, emakume frustratuak, errukia ematen zutenak, ernegatuak <sup>15</sup>.

que nos hace ver a través del «ojo que piensa»<sup>14</sup>, despertando la conciencia afectiva?

Su mirada se dirige a mujeres solas, en pareja o formando grupo, retratos de busto, plano medio o cuerpo entero, robados o posados, con un fondo neutro, en su ambiente laboral o de descanso. Son de todas las edades, muestran su aspecto físico y los elementos que les acompañan. Las mujeres que singulariza Abaitua son humildes, trabajadoras que, empatizando con la fotógrafa, expresan su aquiescencia con una sonrisa y se prestan a sus requerimientos, deteniéndose en su quehacer para ser retratadas. En algunos casos aparecen con sus mejores galas, con el traje de los días de fiesta; casi siempre con atuendos modestos.

Las mujeres de estas fotografías de Eulalia Abaitua no encajan en los estereotipos de la época. Los códigos burgueses de ese tiempo no idealizan a las mujeres de estratos inferiores, campesinas, pobres, trabajadoras. El ideal femenino promovía la belleza, la entrega abnegada al mundo del hogar y la familia, el ejercicio de la maternidad, la subordinación al varón (fuera el cónyuge o el padre), la complacencia. Como el ideal jamás se cumple, esa misma sociedad recurre a los retratos de mujeres como objeto erótico o pornográfico para diversión de los hombres. En ese código burgués, la fotografía también fomentó clichés de la mujer militante, sufragista; mujeres angulosas carente de encantos, es decir, mujeres frustradas, que daban lástima, renegadas <sup>15</sup>.

Abaitua trasciende estos clichés o los ignora, porque su entorno está habitado por mujeres que desmienten ese ideal burgués. Retrata mujeres laboriosas que cuidan de otros, están ocupadas, trabajan. Unas cubren su cabeza con sencillos pañuelos, calzan alpargatas o

<sup>14</sup> Barthes, Roland, Op. Cit. 63-72 or.

<sup>15</sup> Mayayo, Patricia: *Historias de mujeres, historias del arte*. Madrid Ediciones Cátedra, 2010, 158-159. or.

<sup>14</sup> Barthes, Roland, Op. Cit. p. 63-72.

<sup>15</sup> Mayayo, Patricia: *Historias de mujeres, historias del arte*. Madrid: Ediciones Cátedra, 2010. p. 158-159.

Abaituak klixe horiek gaintitu egiten ditu edo ez die jaramonik egiten, inguruan dituen emakumezkoek ideal burges hori gezurtatu egiten dutelako. Beste batzuen zaintzan diharduten emakume laborariak erretratatzan ditu, lanpetuta daude, beharrez dihardute. Batzuk burua zapi xumez estaltzen dute, abarketak jantzten dituzte edo ortozik doaz. Ez daramate farfailik, perifolorik eta kapela apaingarririk, baina guztiek erakusten dute duintasun bat, artifiziorik gabeko dotorezia natural bat. Oro har, emakume ikasi gabeak dira, apalak, euren lan saiatuaren bitartez gizarteari eusten diotenak, nahiz eta gizarte horrek berorrek emakumeok ezabatu, gutxietsi eta baztertu egiten dituen.

Nolanahi ere, erakusketa honetarako aukeratutako argazkietako ereduak beste emakumeen irudiak ere atera zituen, batez ere bere familiakoena. Irudi hau hurrengo 34ekin alderatuz gero, esan dezakegu argazki honek berez erakusten duela oso bestelako unibertsoa: soineko landuak, garestiak eta txukunak, jarrera arduragabea eta nagiantzekoa, inudearen presentzia, inguruaren lasaitasuna, patxada. Irudi honek burgesiako emakume batzuen bizitzako une bat erakusten du; neskameak-eta dituen klase pribilegiatua da, beharrik egiten ez duena. Pasean daude.

Hondino asko dago egiteko Eulalia Abaituaren lana ikertzeko, zabaltzeko eta aitortzeko bidean. Bere argazki-ondarea genero-ikasketen eta berdintasun-politiken eta -planen esparrutik harago doa. Ezin da emakumezkoaren erretratugile moduan sailkatu, eta ez da nolana hiko amateurra balitz legez ikusi behar. Bere argazki-ikuspegiaren merezimenduek hori guztia baino harago doan errepertorioa osatzen dute. Eta bidezkoa den arren onartzea emakumezkoek bere lanaren zati handi bat inspiratu zutela, bere begirada fotografikoa askoz zabalagoa izan zen eta beste helburu batzuk izan zituen.

van descalzas. Visten sin encajes, perifollos ni aparatosos sombreros, pero todas ellas muestran una dignidad, una elegancia natural sin artificio. Son mujeres mayormente iletradas, modestas, que con la realidad de su esforzado trabajo sostienen a esa misma sociedad que las borra, ningunea y excluye.

Sin embargo, al margen de la selección de fotos para esta exposición, Abaitua también registró imágenes de otro modelo de mujeres, especialmente en su propia familia. Si comparamos esta imagen con las 34 siguientes, podríamos decir que esta foto habla por sí misma, es un universo muy distinto: los vestidos elaborados, costosos y pulcros, la actitud despreocupada y ociosa, la presencia de la nodriza, la quietud del entorno, la falta de premura. Esta imagen muestra un momento de la vida de unas mujeres pertenecientes a la burguesía, la clase privilegiada que dispone de servidumbre y no trabaja. Están paseando.

Aún queda un largo camino por recorrer en la labor de investigación, divulgación y reconocimiento de la obra de Eulalia Abaitua. Su legado fotográfico trasciende el ámbito de los estudios de género y las políticas y planes de igualdad. Tampoco cabe encasillarla como retratista de lo femenino, ni debe ser vista como una amateur cualquiera. Los méritos de su visión fotográfica abarcan un repertorio que se extiende más allá de esto. Y aunque es justo reconocer que las mujeres inspiraron una parte muy importante de su trabajo, su mirada fotográfica fue mucho más amplia y con otros objetivos.



Eulalia Abaituaren alabak eta bilobak, inudearekin, Begoñako basilikarantz. Atzealdean, Abaitua Olano andre-gizonen etxea. Circa 1908.  
Eulalia Abaituaren argazkia (ABA-00573)

Las hijas y nietas de Eulalia Abaitua, con la nodriza, van hacia la basílica de Begoña. Al fondo la casa del matrimonio Abaitua Olano. Circa 1908.  
Foto Eulalia Abaitua (ABA-00573)

Sontag-en iritziz, argazki baten erabilera-balioa hondatuta gelditu daiteke idazten zaion argazki-oinaren ondorioz. “Falta den ahotsa argazki-oina da, eta egia esan dezan espero da. Baina argazki-oina, guztiz zehatza izanda ere, atxikitako argazkiaren interpretazio huts-hutsa da, ezinbestean mugatua”.<sup>1</sup>

#### Badugu hitzen premiarik argazki baten aurrean?

Nire ustez, hitzak egileak esaten baditu, orientatu egiten gaituzte argazkiari buruz.

Katalogo honetan bildutako irudi guztiak Eulalia Abaituaren Argazki Artxiboko (ABA) erreproduktzioak dira eta Bilboko Euskal Museoan gordeta daude.

Etkezarragako San Martineko (Artea, Bizkaia) Dominga Larraondo Bilbaoren arabera (1922-2012), zapi zuria Zeanuriren bereizgarria zen, eta puntei “pañuelo adarrak” esaten zitzaizkien (1995eko San Martin egunean elkarrizketatua).

<sup>1</sup> Op. Cit. p. 111

Según Sontag, el valor de uso de una fotografía puede ser saboteado por el pie que se haya escrito. “La voz ausente es el pie, y se espera que diga la verdad. Pero aun un pie absolutamente preciso es solo una interpretación, necesariamente limitada, de la fotografía que acompaña”.<sup>1</sup>

#### ¿Estamos necesitados de palabras ante una fotografía?

Creo que si las dice la autora nos orientan sobre ella.

Todas las imágenes contenidas en este catálogo son reproducciones del Archivo Fotográfico de Eulalia Abaitua (ABA) conservadas en el Museo Vasco de Bilbao.

Según Dominga Larraondo Bilbao (1922-2012), de San Martín de Etkezarraga, Artea, Bizkaia, el pañuelo blanco era distintivo de Zeanuri y a las puntas se las denominaba “pañuelo adarrak” (Entrevista el día de San Martín de 1995).

<sup>1</sup> Op. Cit. p. 111



Eulalia Abaituaren argazki-sinadura.  
ABA-00174

Firma fotográfica de Eulalia Abaitua  
ABA-00174

## 1. argazkia / Foto 1

### Gure Aurreko Andrak. Hiru belaunaldi

Circa 1900

Amama, ama eta alabak. Artetxe baserria, gaur egun Ornilla Doktoarearen kalea dagoen lekuan, Begoñako Txurdinaga auzoan, gaur egun Bilbo. Eguneroko jantziak dituzte soinean.

Amama Catalina Biriga Arizti da, Etxebarri elizateko (Bizkaia) Ametzola abizeneko batekin ezkondua; ama, Eusebia Ametzola Biriga, Basterretxea abizeneko batekin Begoñako Artetxe baserrira ezkondua; alabak, Maria, gazterik hil zena senarra alargunduta eta haurrak umezurtz utzita, eta Cenobia Basterretxea Ametzola, ezkongai gelditua, "Txakoli de la Rubia" ustiatzen zuena.

Artetxe baserria Abaroko estrataren ondoan zegoen. Hiru bizitzakoa zen eta, Sanisidroetan, txandaka hiruretan ematen zen sasoiko txakolina dastatzeko. Fatxadan ereintotza zeinek zeukan, haraxe joaten ziren bezeroak jarlekua hartzera: Isabel Añabeitia edo Alargunaren txakolindegira, Melchor Basterretxearenera edo horren arreba Cenobiarenera ("La Rubia").

### Mujeres Vascas de Ayer. Tres generaciones

Circa 1900

Abuela, madre e hijas. Caserío Artetxe en la actual calle Doctor Ornilla, barrio de Txurdinaga, en Begoña, hoy Bilbao. Están vestidas de diario.

La abuela es Catalina Biriga y Arizti, casada con un Ametzola de la anteiglesia de Etxebarri, Bizkaia; la madre, Eusebia Ametzola Biriga que casó a Begoña con un Basterrechea, al caserío Artetxe; las hijas, María, que murió joven dejando viudo y descendencia, y Cenobia Basterrechea Ametzola, que quedó soltera y explotaba el "Txakoli de la Rubia".

El caserío Artetxe, junto a la estrada de Abaro, tenía tres viviendas y en las tres por San Isidro se degustaba alternativamente el chacolí de temporada. Dependiendo de cuál tenía el branque (rama de laurel) en la fachada, los clientes se sentaban en el chacolí de Isabel Añabeitia o de la Viuda; en el de Melchor Basterrechea o en el de su hermana Cenobia, conocida como "La Rubia".



## 2. argazkia / Foto 2

### Catalina Biriga Arizti

Circa 1900

Amezola etxeko atarian, Etxebarri elizatean (Bizkaia). Aurreko argazkian baino jantzi apainagoak dauzka soinean, domeka edo egun berezietako jantziak izango ziren nonbait.

Catalina argazki gehiagotan agertzen da, ikus *Lehenagokoen begiratuak / Miradas del Pasado*, 5. argazkia (ABA-00200)

### Catalina Biriga y Arizti

Circa 1900

En el portal de la casa Amezola, anteiglesia de Etxebarri, Bizkaia. Sus ropas son más cuidadas que en la fotografía anterior, serían prendas del domingo o los días especiales.

Catalina está representada en varias fotografías, ver *Lehenagokoen begiratuak / Miradas del Pasado*, foto 5 (ABA-00200)



### 3. argazkia / Foto 3

#### Maria Basterretxea, Catalina Biriga eta neskatoa

Circa 1900

Catalina Biriga eta ezker-eskumatara bere iloba Maria eta bere birlobetako bat izan zitekeen neskatoa. Maria eta neskatoa, ikus *Senitartea / La Familia*, 48. argazkia (ABA-00181)

#### Maria Basterrechea, Catalina Biriga y una niña

Circa 1900

Catalina Biriga flanqueada por su nieta María y una niña que podría ser una de sus biznietas. María y la niña, ver *Senitartea / La Familia*, foto 48 (ABA-00181)



## 4. argazkia / Foto 4

### Ama-alabak, adin-profila

Circa 1900

Eusebia, Maria eta Cenobia, Abaituak emakume horiei eginiko posatzeetariko batean, Artetxe baserriko horma baten aurrean kokaturik, hondo neutroa lortzeko, bakoitzaren fisonomia nabarmendu nahian.

Catalina Biriga bezala, Eulalia Abaituaren modeloak ziren. Kontserbatu diren argazkietan, ondo ikus daiteke zelan doan denbora aurrera; izan ere, Eusebia zahartuta eta lutua jantzita agertzen da, eta Cenobia, dagoeneko emakume heldua, ikus *Senitartea / La Familia*, 27. argazkia (ABA-00160) eta *Lehenagokoien begiratuak / Miradas del Pasado*, 35. argazkia (ABA-00230)

Familiaren ondorengo batek, Jon Basterretxeak, gazteena, Cenobia, identifikatu zuenean irten ziren haien izenak argitara.

### Madre e hijas, perfil de edades

Circa 1900

Eusebia, María y Cenobia en uno de los posados que Abaitua realizó de estas mujeres, colocadas delante de una de las paredes del caserío Artetxe para conseguir un fondo neutro, tratando de resaltar la fisonomía de cada una.

Fueron, lo mismo que Catalina Biriga, modelos de Eulalia Abaitua, apreciándose en las diversas fotografías conservadas el paso del tiempo, pues Eusebia se muestra envejecida y de luto, y Cenobia ya madura, ver *Senitartea / La Familia*, foto 27 (ABA-00160) y *Lehenagokoien begiratuak / Miradas del Pasado*, foto 35 (ABA-00230)

Sus nombres salieron a la luz al ser identificada Cenobia, la más joven, por Jon Basterretxea, un descendiente de la familia.



## 5. argazkia / Foto 5

### Laiariak

Circa 1900

Emakumeak laiaketan Arratian. Kamerari begiratu eta irribarre egiten dute. Eulalia Abaitua ere hor dagoela sumatzen da. Kamera eguzkitik babesten duen aterkiaren itzala da.

Laiari berak, ikus *Senitartea / La Familia*, 55. argazkia (ABA-00188)

### Layadoras

Circa 1900

Mujeres arando la tierra en el valle de Arratia. Miran a la cámara y sonríen. Está la presencia de Eulalia Abaitua. Es la sombra del paraguas protegiendo la cámara del sol.

Estas mismas layadoras, ver *Senitartea / La Familia*, foto 55 (ABA-00188)



## 6. argazkia / Foto 6

### Laiariak

Circa 1900

Ezkerretik eskumara zenbaturik, hirugarrena M<sup>a</sup> Magdalena Amundarain Lukudiz da, Zeanuriko Alzuaga auzokoa (Bizkaia), bere iloba Iratxe Ozerinek identifikatua.

Nekazariak etenaldia egin dute Eulalia Abaituak argazkia egiteko eta horrela erakusteko emakumeek ere laian egiten zutela, leku zelaian zein aldapatsuan.

Laiari berak jende gehiagorekin, ikus ABA-00775.

### Layadoras

Circa 1900

Numeradas de izquierda a derecha, la tercera es M<sup>a</sup> Magdalena Amundarain Lucudiz, del barrio Alzuaga en Zeanuri, Bizkaia, identificada por su nieta Iratxe Ozerin.

Las agricultoras se han detenido un momento para que Eulalia Abaitua tome la foto y haga visible que las mujeres también araban los campos, en el llano y en las laderas.

Estas mismas layadoras con más gente, ver ABA-00775.



## 7. argazkia / Foto 7

### Zabalbideko bidean

Circa 1900

Emakume baserritar bi astoarekin bidean aurrera eginez, Bilboko barazki- eta fruta-azoka hornitzera doazenak edo handik datozenak.

“Klik”, Bilboko bideko une bat da. Bide hori Zabalbidetik gora doa, Santo Domingo gainera igo, eta handik Txorierrira jaitsi eta Bermeora heltzen da. Bide hori leku ezaguna da, esan liteke autore honen eszenatoki naturaletako bat dela Begoñan. Eulalia Abaituak hor erretratatu zituen esnezaleak, bendejerak, arropa-garbitzaileak, mandazainak, harginak, kamineruak edo ganadu-tratulariak.

### En el camino de Zabalbide

Circa 1900

Dos mujeres campesinas se desplazan con el burro, van o vienen de abastecer el mercado de verduras y frutas de Bilbao.

“Clic”, es un instante del camino que unía Bilbao, subiendo por Zabalbide, para coronar el alto de Santo Domingo, bajar al Txorierrri y llegar a Bermeo. Este camino es un lugar conocido, podría decirse que es uno de los escenarios naturales de esta autora en Begoña. Aquí Eulalia Abaitua inmortalizó a lecheras, vendejeras, lavanderas, arrieras, canteros, camineros o tratantes de ganado.



## 8. argazkia / Foto 8

### Mari Juana Auriqueta, Landakoetxeko hariztian

Circa 1900

Indusi (Dima, Bizkaia) auzokoa zen. Begoñan egiten ziren ganadu-azoketariko batean dago. Ondo lotuta dagoen txekorra zaintzen ari da, manta bat eskuan duela, behar izanez gero animaliarri gainetik ezartzeko.


Begoñan ganadu-azoka garrantzitsu bi egiten ziren, Eulalia Abaituak berak aipatuak: martxoaren 25koa eta azaroaren 1ekoa.

### Mari Juana Auriqueta en el robledal de Landakoetxe

Circa 1900

Era del barrio de Indusi, Dima, Bizkaia. Está en una de las ferias de ganado que se celebraban en Begoña. Vigila al ternero que esté bien atado y lleva una manta en la mano para cubrir a la bestia si fuera necesario.

En Begoña había dos ferias de ganado importantes, citadas por la propia Eulalia Abaitua: el 25 de marzo y el 1 de noviembre.



## 9. argazkia / Foto 9

### Eskuz iruten ardatzarekin eta goruarekin.

Circa 1900

Biteriño (Dima, Bizkaia) auzoko baserritarra da. Abaituak baserriko ate aurrean jesarrita erakusten digu, lino-matazari eusten dion gorua, goru-txapela ezarri zaiona, gerriaren kontra bermaturik daukala; eskumako eskuaz ardatzari eusten dio eta iruten duen pirua hantxe kiribildu eta batzen du. Bere zapirik onena ipini du soinean, samari ondo lotuta, aurrealde guztia estaltzeko.

Irule hau berau, ikus *Lehenagokoen begiratuak / Miradas del Pasado*, 34. argazkia (ABA-00229)

### Hilando a mano con el huso y la rueca

Circa 1900

Es una campesina del barrio Biteriño, Dima, Bizkaia. Sentada a la puerta del caserío, Abaitua nos la muestra con la rueca, provista del rocamero, gorutxapel, que sujeta el copo de lino, apoyada en el talle; en la mano derecha tiene el huso donde va enrollando la hebra que va hilando. Se ha puesto su mejor pañuelo para cubrirse el torso, bien cerrado al cuello.

Esta misma hilandera, ver *Lehenagokoen begiratuak / Miradas del Pasado*, foto 34 (ABA-00229)



## 10. argazkia / Foto 10

### Atartean eskuz iruten

Circa 1900

Ama-alabak atartean eskuz iruten, Abaituaren kamerari aurrez aurre begira daudela.

Irutea emakumeek egiten zuten lanetako bat zen, eta horrela ehun-oihalez hornitu eta osatzen zuten euren arreo, errituala zein etxekoa. Ez zuten eskolan ikasten iruten, etxean baizik, ahotik ahora eta behin eta berriro ekinez, amengandik alabengana eta auzolanean ikasiz. Askok ia ez zekiten irakurtzen eta idazten, baina denek egiten zuten euren arreo propioa. Emakume horiek baserriko gizonarekin, ikus *Senitartea / La Familia*, 35. argazkia (ABA-00168)

### Hilando a mano en el portal de casa

Circa 1900

Hilando a mano en el portal del caserío, madre e hija se enfrentan a la cámara de Abaitua.

Hilar era uno de los trabajos que hacían las mujeres para abastecerse de tela y confeccionar el ajuar personal, ritual y doméstico. Hilar no se aprendía en la escuela sino en el hogar, de forma oral y practicando, de madres a hijas y en *auzolan*. Muchas apenas sabían leer y escribir pero todas elaboraban su propio ajuar. Estas mujeres con el hombre del caserío, ver *Senitartea / La Familia*, foto 35 (ABA-00168)



## 11. argazkia / Foto 11

### Portuan arrainak hautatzen

Circa 1900

Santurtzin (Bizkaia) gaude. Arrantzaleak portura heldu dira eta emakumeek arraina deskargatu, aukeratu eta otzaretan sartzen dute saltokietara eramateko.

Eguzkiak bete-betean jotzen du eta argitasun handia eta itzal sakonak sortzen ditu.

### Seleccionando la pesca en el puerto

Circa 1900

Estamos en Santurtzi, Bizkaia. Han llegado los pescadores y las mujeres descargan las capturas, seleccionan y colocan los peces en las cestas para su transporte a los puestos de venta.

El sol luce de pleno, crea mucha luz y profundas sombras.



## 12. argazkia / Foto 12

### Arrain-garraioan

1903a baino geroagokoa

Sardina-saltzaile bi, saldu beharreko arrainak eramateko otzara buru gainean dutela, Portugaleteko (Bizkaia) tren geltokiaren ondoan. Atze-atzean dagoen Victor Txabarri industrialari eta politikariaren monumentuaren estatuak argazkiaren kronologia mugatzen du.

Bakarrik, bikoteka edo taldeka, oinez egiten dute Bilborainoko ibilbidea, oinutsik, “gona jasota, bernak agirian”, abestiak dioenez. Beharbada, presaz ibilita estropezu ez egi-tearren jasoko zuten gona, lehenago heltzeko eta kaleetan edo azokan salmenta-leku ona harrapatzeko.

### Trasportando el pescado

Posterior a 1903

Dos sardineras llevan en la cabeza los cestos con el pescado para la venta, junto a la estación de tren de Portugalete, Bizkaia. Al fondo la estatua del monumento al industrial y político Victor Chavarri acota la cronología de la foto.

Solas, en pareja o formando grupo, hacen el recorrido hasta Bilbao andando, descalzas, “con la falda remangada luciendo la pantorrilla”, dice la canción. A lo mejor se remangaban la falda para no trabarse con el paso rápido que llevaban, para llegar antes y tener un buen puesto en la venta, por las calles o en el mercado.



### 13. argazkia / Foto 13

#### Bilboko Erriberako azokan

Circa 1895

Sardina-saltzaileak aire zabalean daude, salgaiak otzaretan dituztela, Plaza Zaharreko galtzada-harrien gainean, ilaran jarririk, bezeroek begirada azkar batez ikusi ahal izan dezaten zer duten saltzeko. Erosleak neskameak dira, dotoreago jantzita daudenak, zapatak dituzte soinean.

#### En el mercado de la Ribera-Bilbao

Circa 1895

Las sardineras están al descubierto con su mercancía en las cestas, sobre el empedrado de la Plaza Vieja, alineadas para que las clientas con una mirada rápida vean lo que ofrecen. Las que compran son criadas, que visten más elegantes, van con zapatos.



## 14. argazkia / Foto 14

### “Limpiando calamares” “1908”

“Lequeitio” da, plaka estereoskopikoan eskuz idatzita agertzen denez.

Abaitua esparru horretan sartu da, arkupeak dituen patio batean, eta emakumeen lanaren berri ematen digu, txibiak garbitzen. Tinen inguruan jesarrita daude, itsas zabaleko harrapaketei irteera emateko. Modeloek posatu gabe hartu du argazkia, baina argazkilaria han dagoela ohartu dira batzuk, eta kamerari begira daude, bera dagoen lekurantz.

### “Limpiando calamares” “1908”

Es en “Lequeitio”, según figura manuscrito en la placa estereoscópica.

Abaitua se ha introducido en este espacio, un patio con pórticos, y nos informa del trabajo de las mujeres, sentadas en torno a tinas para dar salida a las capturas de mar adentro. Ha tomado la fotografía sin ninguna pose de las modelos aunque algunas han detectado su presencia y miran a la cámara, hacia donde está ella.



## 15. argazkia / Foto 15

### Arropa-garbitzaileak bidean

Circa 1900

Lehen ikusi dugun bideko beste leku batean gaude. Emakumeak oinez doaz, zaku handietan garbitu beharreko arropak eta beste trepetxu batzuk daramatzaten astoak alboan dituztela, eta ibiltzeari utzi gabe irribarre egiten diote argazkilaritari.

Bidea mugatzen duen harri ilaratik doan emakumeari erreparatuz gero, Eulalia Abaituaren eguzkitakoa<sup>2</sup> eskuan duela ikusiko dugu; haren ondoan ikusten den neska gazteak, amantal zurikoak, aldean darama Eulalia Abaitua argazki hau egiteko erabiltzen ari den kamera estereoskopikoaren kutxatila.

### Lavanderas en el camino

Circa 1900

Estamos en otro punto del camino que hemos visto antes. Las mujeres van andando con los burros cargados de grandes sacos de ropa para lavar y otros pertrechos, y en su caminar sonríen a la fotógrafa.

Si observamos a la mujer que va por la línea de piedras que delimita el camino, vemos que lleva en la mano la sombrilla de Eulalia Abaitua<sup>2</sup>; la joven que se aprecia junto a ella, con delantal blanco, lleva en bandolera el estuche de la cámara estereoscópica con la que Eulalia Abaitua estaba tomando esta fotografía.

<sup>2</sup> Parasol bat, bere loba Begoña Urquijo Olanoren (1918-2009) lekukotasunaren arabera, beti aldean eramaten zuen aterkia. Aterki horren itzala bere argazkiren batean ikus daiteke, esaterako lan honetan erreproduzitu den ABA-00001 argazkian. Baita ABA-00104, ABA-00194 eta ABA-00948 argazkietan ere. Eulalia Abaitua bera, aterkia duela, ikus *Senitartea / La Familia*, 49. argazkia (ABA-00182) eta *Begoña 1900*, 31. or., ABA-00595.

<sup>2</sup> Un parasol, un paraguas que, según el testimonio de su nieta Begoña Urquijo Olano (1918-2009), siempre la acompañaba. La sombra de ese paraguas puede verse en alguna de sus fotos, caso de ABA-00001, reproducida en esta obra. También en ABA-00104, ABA-00194, ABA-00948. La propia Eulalia Abaitua con el paraguas, ver *Senitartea / La Familia*, foto 49 (ABA-00182) y *Begoña 1900* p. 31, ABA-00595.



## 16. argazkia / Foto 16

### Arropa-garbitzaileak

Circa 1900

El Pontoneko errotaren ondoan, Abusun (Bilbo). Garbitu beharreko arropa piloak, lur gainean zabaldutako oihalen gainean ezarriak. Arropa-garbitzaileak Bilboko burgesiaren soldatapekoak ziren, eta, gremioetan edo sindikatuetan antolatuta egon gabe, belauniko egiten zuten lan harriaren atzean, aire zabalean, urarekin eta xaboiarekin arropa igurtziz.

Argazki honek, urrunetik bada ere, eguneroko eszena bat erretratatzeko du eta ahanzturatik ateratzen ditu langile xume horiek.

### Lavanderas

Circa 1900

Junto al molino del Pontón, en la Peña, Bilbao. Montones de ropa para lavar sobre las telas extendidas en la tierra. Las lavanderas eran asalariadas de la burguesía bilbaína que, sin organización gremial o sindical, trabajaban de rodillas tras la piedra, a cielo abierto, con el agua y el jabón restregando la ropa.

Esta fotografía aunque distante, retrata una escena cotidiana sacando a estas humildes trabajadoras del olvido.



## 17. argazkia / Foto 17

### Garbilekua: lan egiteko, biltzeko eta elkartzeko lekua

Circa 1900

Lau arropa-garbitzaileek lan-arropak dituzte soinean. Ziur asko, Lekeitioko Madalenako errekatxoan. Abaituak lixiba-harriak erakusten dizkigu; lauza errektangularrak ziren, plano zeiharrean jarriak, arropak jotzeko erabiltzen zirenak. Inguruan, upa-oholekin eginiko tinak eta zinkeko balde modernoak daude.

Aitor Iturbeari esker identifikatu da lekua.

### El lavadero: lugar de trabajo, reunión y encuentro

Circa 1900

Las cuatro lavanderas están vestidas de faena. Posiblemente en el regato Madalena de Lekeitio, Bizkaia. Abaitua nos muestra las piedras para lavar, esas losas rectangulares dispuestas en plano oblicuo sobre las que se restregaba la ropa. Acompañan la escena las tinas hechas con duelas y los baldes de zinc más modernos.

La identificación del lugar se debe a Aitor Iturbe.



## 18. argazkia / Foto 18

### Arropa-garbitzailea soslaiz

Circa 1900

Rosario Arabio-Urrutia Baltziskueta, Basakoetxe baserrikoa, Abaitua edo Boni izenekin ere ezaguna den baserrikoa. Rosario Eulalia Abaituaren arropa-garbitzailea eta haren argazki batzuen modelo zen.

Irudia baserriaren ondoko errekan hartua da, santutegitik hurbil; beherago, *El Pino jauregitik* hurbil, presa moduko gune bat zegoen, lixiba-lekutzat erabiltzen zena. Baserria gaur egungo Zumalakarregi etorbideko 115-117 zenbakietan zegoen.

Miren Larrazabal begoñarrak ezagutu zuelako jakin da irudikoa Rosario dela, Eulalia Abaituaren arropa-garbitzailea.

### Perfil de lavandera

Circa 1900

Rosario Arabio-Urrutia Balciscueta, del caserío Basakoetxe, también conocido como caserío Abaitua o caserío Boni. Rosario era lavandera de Eulalia Abaitua y modelo de alguna de sus fotografías.

La imagen fue tomada en el río que pasaba junto al caserío, cerca del santuario; más abajo represaba y se utilizaba como lavadero, cerca del *palacio del Pino*. El caserío estaba en la actual Avenida Zumalacárregui números 115-117.

Rosario, lavandera de Eulalia Abaitua, salió a la luz al ser reconocida por la begoñesa Miren Larrazabal.



## 19. argazkia / Foto 19

### Irribarrea lanean

Circa 1900

Aurreko argazkiko leku bera. Rosario posatzen ari da eta lagunak lanean jarraitu du, baina burua altxatu du; biek ala biek irribarre tolesgabea egiten dute Eulalia Abaituaren erretraturako.

Merezi du erreparatzea nola daukan Rosariok gona tolestu eta lotuta arropa uretatik babesteko.

### Una sonrisa en el trabajo

Circa 1900

El mismo sitio que la fotografía anterior. Rosario posa para la foto y la compañera sigue en la faena pero levanta la cabeza, ambas sonríen francamente para el retrato de Eulalia Abaitua.

Merece la pena detenerse en cómo Rosario tiene plegada y anudada la falda para preservar la ropa del agua.



## 20. argazkia / Foto 20

### Eguneroko zereginak txikitatik ikasten

Circa 1900

Ezkerreko neskatoa Anastasi Azkarate Garaizabal da, San Agustin (Elorrio, Bizkaia) auzoko Etxebarria baserrikoa. Txiki-txikitatik izaten zituzten emakumeek euren lanak esleituta, lixiba jotzea zen horietako bat, irudi honetan dokumentatzen den bezala. Erreka-munaren gainean, ezkerretik eskumara, Jose, Petra eta Victor, Anastasiren nebak, eta atzerago zotz hutsen gainean arropa zabaldua.

Familia talde osoa, ikus *Senitartea / La Familia*, 28. argazkia (ABA-00161)

Ricardo Ajuria eta Luis Madina elorriarrei esker identifikatu dira.

### Desde niñas aprendiendo los quehaceres diarios

Circa 1900

La niña de la izquierda es Anastasi Azcarate Garaizabal, del caserío Etxebarria, barrio San Agustín, Elorrio, Bizkaia. Desde bien chiquitas las mujeres tenían sus trabajos, uno de ellos era la lavandería, como se documenta en esta imagen. Sobre el talud del río, de izquierda a derecha José, Petra y Víctor, hermanos de Anastasi, y la ropa tendida en simples palos.

El grupo familiar al completo, ver *Senitartea / La Familia*, foto 28 (ABA-00161)

Las identificaciones se deben a Ricardo Ajuria y Luis Madina, ambos de Elorrio.



## 21. argazkia / Foto 21

### Urontzi bereziak

Circa 1900

Hiru emakumeak Begoñako Errepublikako plazako iturrian daude, Bilbon. Eguneroko arropak soinean dituztela, potinak eta edarra daramatzate buru gainean, iturri publikotik etxeetara ura eramateko eta gordetzeko erabiltzen ziren ontziak. Orduan ez zegoen ur korronterik etxeetan, eta emakumeak arduratzen ziren ezinbesteko hornigai horretaz.

### Recipientes especiales para el agua

Circa 1900

Las tres mujeres se sitúan en la fuente que había en la Plaza de la República de Begoña, Bilbao. Con sus ropas de diario, llevan en la cabeza los cántaros y la herrada, los recipientes para contener y transportar el agua desde la fuente pública a los hogares. Entonces no había agua corriente en las casas y eran las mujeres las encargadas de ese suministro indispensable.



## 22. argazkia / Foto 22

### Potinarekin eguneroko bidean

Circa 1900

Potina ura eramateko erabiltzen zen eta 12 litrotik 15era bitarteko edukiera zuen. Litro horiek buru gainean eramaten ziren; beraz, potina ez hausteko, kontu handiz eramaten ikasi behar zen.

Eguzkiak ondo jotzen du, emakumeak bekozkoa zimurtu du begiak argitasun handitik babesteko. Beharbada, kamerak artegatu du. Beheko aldean, Eulalia Abaituaren itzala ageri da.

### Con el cántaro, *pedarra*, en el camino diario

Circa 1900

La *pedarra*, el cántaro vasco, podía contener entre 12 y 15 litros de agua. Eran kilos puestos en la cabeza, que había que aprender a llevar con cuidado para no romper la vasija.

Es un día de pleno sol, la mujer frunce el ceño para preservar los ojos de la intensa luz. A lo mejor se siente perturbada por la cámara. La sombra de Eulalia Abaitua en el margen inferior.



## 23. argazkia / Foto 23

### Baserri-mundutik hiri-mundura igarotzea

Circa 1900

Emakume bi jesarrita daude *El Pino jauregiko* lorategiko izei baten aurrean. Seguru asko, ama-alabak izango dira. Soinekoek aditzera ematen dutenez, ama baserritarra da eta alabak hiriko moda jarraitzen du, eta izan liteke Eulalia Abaituaren etxeko zerbitzaria izatea.

Beharbada, domeka arratsaldea izango da eta amak alabak libre duen denbora aprobetxatu du bisitatzeko. Orduan, etxeko zerbitzariak domeka arratsaldeetan izaten zuten jai, hamabost egunik behin.

### El paso del mundo rural al mundo urbano

Circa 1900

Dos mujeres están sentadas delante de un abeto del jardín del *palacio del Pino*. Probablemente son madre e hija. Sus vestidos informan de que la madre es una mujer de caserío y la hija sigue la moda urbana y podría pertenecer al servicio doméstico de Eulalia Abaitua.

Quizá es una tarde de domingo, y la madre ha aprovechado el tiempo de libranza de la hija para visitarla. Entonces el servicio doméstico tenía fiesta las tardes de los domingos, cada quince días.



## 24. argazkia / Foto 24

### Janzkera, tradizioaren eta ingurunearen adierazpide

Circa 1905

Hiru emakume-belaunaldi. Amama eta ama, loretxoak eskuetan dituztela, bisitan joan zaizkio neskame dagoen neska gazteari. Aurrekoaren antzera, amamaren eta amaren soinekoak, esaterako euren tokillak, baserriko mundu tradizionalakoak dira; alabaren soinekoak, berriz, hiriko modari dagozkio.

Gaztea Castora da, Concepción Olano Abaituaren zerbitzuko nesketariko bat. Bilbon bizi izan zen, Campo Volantin kaleko 21. zenbakian, 1908an Begoñara aldatu zen arte. Begoña Urquijo Olanok, Eulaliaren bilobak, eman zuen horren berri.

### La indumentaria, expresión de la tradición y el medio

Circa 1905

Tres generaciones de mujeres. La abuela y la madre, con florecillas en las manos, visitan a la joven que está de doncella. Similar a la anterior, las ropas de la abuela y de la madre con sus toquillas responden al mundo rural tradicional, las ropas de la hija a la moda urbana de las ciudades.

La joven es Castora, una de las muchachas del servicio de Concepción Olano Abaitua, que vivió en Bilbao, en el Campo Volantín nº 21, hasta su traslado a Begoña en 1908. Informó Begoña Urquijo Olano, nieta de Eulalia.



## 25. argazkia / Foto 25

### Emakumeak eta umeak Santo Domingo gainean

Circa 1900

Begoñako Santo Domingo gaineko baserri bateko leihoaren aurrean, sei emakume eta haien umeak daude Abaituaren kamerari begira. Eguneroko arrokekin agertzen dira, euren zereginetan gelditu eta euren haurtxoak erakusten dituzte. Jende guztia erretraturako "klik"ari adi dago.

Erdialdeko emakumeak otzara berezi bat darama buru gainean, artza esaten zaiona, gari-garauei zahia kentzeko erabiltzen zena.

### Mujeres y niños del alto de Santo Domingo

Circa 1900

Delante de la ventana de un caserío del alto de Santo Domingo, en Begoña, seis mujeres con su descendencia miran a la cámara de Abaitua. Se presentan con sus ropas de diario, se han detenido en su quehacer y muestran a sus bebés. Todo el mundo atento al "clic" para el retrato.

La mujer del centro lleva en la cabeza una cesta especial, una aventadora, *artza*, utilizada para limpiar las semillas de trigo de sus cascarillas.



## 26. argazkia / Foto 26

### Baserriko atearen aurrean jesarrita

Circa 1900

Harrizko harlauzen gainean, amama lihoa iruten ari da; emakumeak haurtxoa ondo tente erakusten du, gerrian mendela batuta. Haiez gainera, beste neska bik osatzen dute erretratua.

Erljioaren babesa ere ikus daiteke, ateburuan iltzatuta dagoen Jesusen Bihotz Sakratuaren plaka. Zumitezko otzarak aditzera ematen duenez, etxe horretakoak saltzaile ibiltariak izango dira, otzarak saltzeaz gainera aterkiak eta lapikoak konpontzen zituztenetarikoa.

Pertsona berak, ikus *Senitartea / La Familia*, 17. argazkia (ABA-00150).

### Sentadas delante de la puerta del caserío

Circa 1900

Sobre las losas de piedra, la abuela está hilando el lino; la mujer muestra al bebé enfajado bien tieso con sus refajos. Dos niñas completan el retrato.

La protección religiosa se hace visible por la placa del Sagrado Corazón de Jesús clavada en el dintel de la puerta. El cesto de mimbre informa de vendedores ambulantes que además de vender cestos reparaban paraguas y pucheros.

Las mismas, ver *Senitartea / La Familia*, foto 17 (ABA-00150).



## 27. argazkia / Foto 27

### Umea erakusten, argazkia egiteko

Circa 1900

Baserritar bi, bere tokillarekin ondo berotutako haurtxoa eta txakurtxo bi Begoña elizateko lekuren batean.

### Exponiendo al bebé para la foto

Circa 1900

Dos campesinas, un bebé bien abrigado con su toquilla, y dos perrillos en un punto de la anteiglesia de Begoña.



## 28. argazkia / Foto 28

### Bide-ertzean

Circa 1900

Berrito Bilbotik Bermeorako bidean. Ama eta bere haurra jesarri egin dira, beharbada haurrari jausi zaion zapatatxo janzteko. Atzean ahuntzak ageri dira, ondo lotuta; izan ere, esaerak dioen bezala, “ahuntzak mendira du joera”.

### Al borde del camino

Circa 1900

Otra vez en el camino de Bilbao a Bermeo. La madre y su bebé se han sentado, a lo mejor para ponerle el zapatito que se le había caído. Tras ella las cabras bien atadas, por aquello de que “la cabra tira al monte”.



## 29. argazkia / Foto 29

### María Rosalía Echezarraga Echezarraga

Circa 1908

Maria Rosalia, haurra besoetan duela, Alzusta (Zeanuri, Bizkaia) auzoko Arraldi baserriko atean dago. Doroteo Ogara Angoitiarekin ezkondu zenean joan zen baserri horretara. Mari Arraldikoa edo Arraldiko Mari esaten zioten.

Argazkiaren hondoko iluntasunak gehiago nabarmentzen du bere zapi zuri bikaina, puntak tente dituen.

Ahizpa bi zituen, Juliana eta Andresa, haiek ere Eulalia Abaituak erretratatuak, ikus *Senitartea / La Familia*, 32. argazkia (ABA-00165). Era berean, Andresaren ezkontzarako arreo-gurdiari ere egin zion argazkia (ABA-01082)

### María Rosalía Echezarraga Echezarraga

Circa 1908

María Rosalía está con su bebé en brazos, en la puerta del caserío Arraldi, barrio de Alzusta, Zeanuri, Bizakaia. Marchó a ese caserío cuando casó con Doroteo de Ogara y Angoitia. Se la conocía como Mari Arraldikoa o Arraldiko Mari.

La oscuridad del fondo de la fotografía resalta su pañuelo blanco impecable, con las puntas bien tiesas.

Tenía dos hermanas: Juliana y Andresa, que Eulalia Abaitua también retrató, ver *Senitartea / La Familia*, foto 32 (ABA-00165). Así mismo inmortalizó el carro del arreo para la boda de Andresa (ABA-01082)



## 30. argazkia / Foto 30

### Emakume zaharra erretzen, esku artean tabakontzia duela

Circa 1900

Abaituak baserriko atean jesarrira erretratatzeko emakume zahar hori, argazkirako itxurazko prestakuntzarik gabe, erretzen, buztin zurizko pipa ahoan, tabako-kutxatila eskuetan duela.

Karmele Goñi Auzmendi etnografoak emakume erretzaile bi aurkitu zituen bere ikerketetan: bata Zeanuriko Uribe auzoko Ospelarra baserrikoa eta bestea Dimako Elormendi baserrikoa.

### Anciana fumando con tabaquera entre las manos

Circa 1900

Sentada en la puerta del caserío, sin preparación aparente para la foto, Abaitua retrata a esta anciana fumando con su pipa de arcilla blanca y el estuche del tabaco en sus manos.

La etnógrafa Karmele Goñi Auzmendi localizó en el transcurso de sus investigaciones a dos mujeres fumadoras: una era del caserío Ospelarra, barrio de Uribe, Zeanuri, y la otra del caserío Elormendi de Dima.



## 31. argazkia / Foto 31

### Emakume edadetuak

Circa 1900

Ate baten aurrean, zutik eta bakoitza bere jarrerarekin, bost emakume horiek erretraturako prestatu dira. Haietako batek ez zekien geldirik egon behar zuela, eta mugiturik irten da. Beharbada horregatik egin zien Abaituak beste argazki bat (ABA-00739), eta bigaren horretan ederto ageri dira denak; hori bai, askoz serioagoa dute aurpegia.

### Mujeres de edad

Circa 1900

Delante de una puerta, de pie y cada una con su postura, estas cinco mujeres se han dispuesto para el retrato. Una de ellas no sabía que tenía que estarse quieta y ha salido movida. Quizá por eso, Abaitua les hizo otra foto (ABA-00739) y en esa todas figuran perfectas; eso sí, con el semblante mucho más serio.



## 32. argazkia / Foto 32

### Severiana Egileor, Albakoa baserrikoa

Circa 1900

Baserriko atea itxita zegoela egin zuen Abaituak Severiana Egileorren (Zeanuri, 1878-1920) erretratu hau. Pedro Aranarekin ezkondu zen eta Ortuzar baserrira joan zen (Zeanuri, Bizkaia).

Artilezko oihalez egindako jipoi estua du soinean, gonak egiteko janzkera tradizionalen ere erabiltzen ziren koadroak osatuz ehundua. Zapiak, saman ondo lotuta, bularra estaltzen dio; lehen ikusi dugun bezala, hori zen egokiena.

Maite Aranari esker identifikatu da baserritar hau.

### Severiana Eguileor, del caserío Albakoa

Circa 1900

Con la puerta del caserío cerrada, Abaitua hace este retrato de Severiana Eguileor (Zeanuri, 1878-1920). Casó con Pedro Arana y marchó al caserío Ortuzar, Zeanuri, Bizkaia.

Viste un jubón ajustado al torso hecho con tela de lana, tejida formando cuadros que también se usaba en la indumentaria tradicional para confeccionar faldas. El pecho lo cubre con el pañuelo bien atado al cuello; como hemos visto antes, era lo correcto.

La identificación de esta campesina se debe a Maite Arana.



### 33. argazkia / Foto 33

#### Esperientziaren begiak, irribarre bat etorkizunerako

Circa 1900

Hondoko oihalak Arratiako emakume zahar honen aurretiko erretratu enkoadratzen du. Argazki honek aukera ematen digu Eulalia Abaituak lan egiteko zituen moduetako bat dokumentatzeko; izan ere, pertsona jakin batzuentzat, hondoko oihala erabiltzen zuen inguruneko zaratak ezabatzeko eta fisionomiak nabarmentzeko.

Emakume zahar hau Abaituaren modeloa zen, ikus *Lehenagokoen begiratuak / Miradas del Pasado*, 33. argazkia (ABA-00228) eta beste erretratu batzuk ABA-00693, ABA-00937, ABA-00938.

#### Los ojos de la experiencia, una sonrisa para la posteridad

Circa 1900

Una tela de fondo encuadra el retrato frontal de esta anciana arratiana. Nos sirve de ejemplo para documentar una de las formas de trabajo que tenía Eulalia Abaitua, quien, para determinadas personas, utilizaba una tela de fondo con la que eliminaba los ruidos ambientales y resaltaba las fisionomías.

Esta anciana fue modelo de Abaitua, ver *Lehenagokoen begiratuak / Miradas del Pasado*, foto 33 (ABA-00228) y otros retratos ABA-00693, ABA-00937, ABA-00938.



ABA-00039

## 34. argazkia / Foto 34

### Erromes erretratua

1900-1903

Bularrean erromesaldiko domina duen emakume baten plano ertaina. Erromesaldia Begoñako Ama Birjinaren 1900eko Koroatze kanonikoarena izan daiteke, edota 1903an Bizkaiko Zaindari izendatu zutenekoa. El Pino jauregiko horma batean gaude, arrosak hazten ziren leku batean. Talde-erretratua duen argazki zabalago bat *Lehenagokoen begiratuak / Miradas del Pasado* sailean argitaratuta dago, 53. argazkia (ABA-00248).

Eulalia Abaituak arrosak aukeratu zituen hondoko oihaltzat erromes hori kameraren aurrean jartzeko, eta beraren aurrean daliak kokatu zituen.

Atentzioa eman dit beti emakume erromes horren aurrean lore horiek egoteak. Internetek honako hau dio lore horiei buruz: “Daliak viktoriar garaiko loreen hizkuntzan duen esanahiak bizirik iraun du; beraz, oparizat ematen duzunean, lore horrek konpromisoa, maitasuna, duintasuna eta dotorezia adierazten ditu.

Arrosaren sinbologiari dagokionez, honako hau dio Wikipediak: “Arrosak maitasunaren eta edertasunaren sinbolo zaharrak dira. Arrosa sakratua zen antzinako jainkosa kopuru handi batentzat (jainko femeninoak), eta, sarri, Ama Birjinaren ikurtzat erabiltzen da.”

### Retrato de una peregrina


1900-1903

Plano medio de una mujer con medalla de la peregrinación en el pecho, bien de la Coronación Canónica de la Virgen de Begoña en 1900, bien de la Declaración de Patrona de Bizkaia en 1903. Estamos en una de las paredes del palacio del Pino, donde crecían los rosales. Una foto más amplia con retrato de grupo está publicada en *Lehenagokoen begiratuak / Miradas del Pasado* foto 53 (ABA-00248).

Eulalia Abaitua eligió los rosales como telón de fondo para situar a esta peregrina ante la cámara y delante de ella unas dalias.

Siempre me ha llamado la atención la presencia de esas flores delante de esta mujer peregrina. Internet dice sobre esta flor: “El significado de la Dalia en el lenguaje de las flores de la época victoriana ha sobrevivido, por lo que cuando la entregas como regalo, esta flor expresa compromiso, cariño, dignidad y elegancia.”

En cuanto a la simbología del rosal, dice Wikipedia: “Las rosas son símbolos antiguos del amor y de la belleza. La rosa era sagrada para un número considerable de diosas (deidades femeninas) de la antigüedad, y se utiliza a menudo como símbolo de la Virgen María.”



ABA-00043

# TEKNIKA ZEHAZTASUNA / FICHA TÉCNICA

## KATALOGOA / CATÁLOGO

Eulalia Abaituaren emakumeak /  
Las mujeres de Eulalia Abaitua

## EGILEA / AUTORA

Maite Jiménez Ochoa de Alda

## EDIZIOA / EDICIÓN

Javier Barrio Marro

## DISEINU ETA MAKETAZIOA / DISEÑO Y MAQUETACIÓN

Ouidesign

## ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

Eulalia Abaituaren emakumeak /  
Las mujeres de Eulalia Abaitua

## ARDURADUNA / COMISARIA

Maite Jiménez Ochoa de Alda

## ARGAZKIEN JATORRIA / PROCEDENCIA DE LAS FOTO- GRAFÍAS

Euskal Museoa-Museo Vasco. Bilbao

## ITZULPENAK / TRADUCCIONES

Bizkaiko Batzar Nagusien Itzulpen  
Zerbitzua

## INPRIMAKETA / IMPRESIÓN

Grafilur

ISBN: 978-84-88088-36-9

D.L.:

